
**EUSKARA
IKASTEAREN
PROZESUARI
BURUZKO
BIZIPENAK ETA
EUSKARAREN
INGURUKO
JARRERAK ETA
PERTZEPZIOAK
ADINAREN
ARABERA**

OIHANA BARTRA ARENAS

HIZNET HIZKUNTZA PLANGINTZA

GRADUONDOKOA

Tutorea: Belen Uranga

EUSKAL HERRIKO

UNIBERTSITATEA

2014-07-18

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	2
1.1	AURREKARIAK.....	2
1.2	MARKO TEORIKOA.....	4
1.3	LANAREN HELBURUAK	16
2.	METODOLOGIA.....	19
2. 1.	Datuak biltzeko metodoa	19
2.2.	Solaskideak	22
2.3.	Datuak aztertzeko metodoa.....	23
2.4.	Metodologiaren ebaluazioa	23
3.	DATUEN AZTERKETA ATALKA	23
3.1	ARRAZOIAK ETA BIZIPENAK	24
3.2	ERABILERA	28
3.3	ZAILTASUNAK ETA FRUSTRAZIOAK.....	34
3.4	KONTZIENTZIA MAILA	38
3.5	AURRERA BEGIRA	43
4.	ONDORIOAK	46
	ERANSKINA: Galdetegia.....	50
	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	51

1. SARRERA

Lan hau egitearen ideia nire lan-esparrutik sortutakoa da. Bost urte eman nituen ikastola batean gazteen irakaskuntzan eta, horren ostean, beste bi urtez egon nintzen helduenean. Aurten, aldiz, aldi berean aritu naiz gazteen eta helduen irakaskuntzan. Gazteen taldea Begoñazpi ikastolako eskolaz kanpoko ekintza batekoa izan da. Ikasleek bazkaltzeko dituzten bi orduetan hainbat ekintza dituzte aukeratzeko, euren artean EGA azterketa prestatzekoa. Astean bi egunetan, egun bakoitzean ordu eta erdiz, EGA prestatzeko eskolak eman ditut, beraz. Talde bakarra izan dut, 20 ikasletakoa. Bestalde, Bilboko Udaleko zinegotziei, aholkulariei eta zuzendariei euskara-klaseak eman dizkiet, talde bakoitzari astean bi orduz. Sei talde izan ditut, bi eta lau ikasle artekoak, eta euskara-maila oso ezberdinekoak. Guztira beste 20 ikasle izan ditut. Talde batzuk ahozko hizkuntza lantzekoak izan dira, eta, beste batzuk berriz, alfabetatze klaseak.

Urte honetan jabetu naiz, hain zuzen ere, bi talde moten arteko aldeaz. Alde batetik, gazteek euren gurasoek derrigortuta jasotzen zituzten klaseak (ez neukan bere borondatez izena emandako ikaslerik); helduak, ordea, eurek erabakita eta kasu askotan euren lan-orduetatik orduak kenduta etortzen ziren eskolak hartzera. Hain sinplea ematen duen premisatik abiatuta, motibazio horrek beste faktore guztiengan eragiten duela konturatu naiz: klaseen aprobetxamendua, errendimendua, ikasketa-prozesuaren arrakasta eta abar.

Hori dela eta, eta euskara-klaseak jasotzeko motibazio ezberdintasuna abiapuntu izanik, adin-tarte bien jarrerak aztertzea erabaki nuen: euskara ikasteko arrazoiak, euskararen erabilera, ikasketa horretan izandako zailtasunak eta frustrazioak, euskararen gaineko kontzientzia-maila eta aurrera begirako euren irudikapena.

Hipotesia hurrengoa da: ikasleek euskara ikasteko duten motibazioak eta euskararekiko duten pertzepzioak baldintzatuko du euskararen erabilera.

1.1 AURREKARIAK

Ugariak dira modu batean ala bestean nire aztergaia jorratzen duten lanak. Izan ere, lan horietako asko oso baliagarriak izan dira ikerketatxo hau egiteko oinarri gisa.

Lan horietako askok adinaren aldagaia hartzen dute kontuan. Adibidez Kontxesi Berrio-Otxoaren *Gaztetxoak eta hizkuntz gaitasuna, erabilera, iritziak eta hautapena* lanak lotura hori egiten du, hain zuzen ere. Gazteek hizkuntzarekiko iritziak eta gaitasunak erabilerarekin duena. Gauza bera egiten du Nekane Larrañagak *Euskararekiko jarrerak eta jokabideak. Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean* lanean. Funtsean hori da nire lanaren oinarria ere, hots, jarrerak duen eragina erabileran. Lan horien eta nirearen arteko aldea da nik lotura horren konparazioa egiten dudala bi adin-talde ezberdinetan.

Berrio-Otxoak eta Larrañagak gazteen aurreiritzien eta erabileraren inguruko lana egin duten bezalaxe, badago Nekane Arratibelek helduen inguruan egindako beste lan interesgarri bat: *Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioen errola*. Hizkuntza bat ikasi eta erabiltzerako orduan motibazioak duen papera aztertzen du Arratibelek lan horretan.

Beste lan askok adinaren aldagaia albo batean uzten badute ere, aurreiritzien eta jarreraren arloa lantzen dute, eta oso ekarpen interesgarriak egiten dituzte norabide horretan. Horren adibide da Amorrortu eta besteren *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* lana. Bertan euskararekiko jarreraren izaera aztertzen da besteak beste, eta euskarari ze balio ematen dioten pertsonak. Pertsona horiek dituzten aurreiritziak sailkatu egiten dira eta horiek modu positiboan ala negatiboan eragiten duten azaldu.

Era berean, Iñaki Martinez de Lunak *Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak* lanean hizkuntzarekiko motibazioak eta erabilera egokia aztertzen ditu, motibazioak erabileran nola eragin dezaketen azaltzeko. Horrez gain, euskararen erabilera (eta erabilera egokia) mugatzen edo eragozten duten baldintzak azaltzen ditu, baita hizkuntza ikasteko eragiten duten faktoreak eta prozesuak ere.

Horiez gain, aipagarriak dira Josu Peralesek motibazioaren eta jarreraren inguruan egindako bi lan: *Euskara-ikasleen motibazio eta jarrerak* eta *Gainbegirada bat hizkuntz jarrerei Euskal Herrian*, biak ala biak jarreraren paperaren garrantziari lotutakoak.

Hala ere, ez dut topatu bete-betean nire aztergaiaren alderdi guztiak biltzen dituen ikerketa-lanik, hots, hizkuntzaren motibazioa eta pertzepzioak eta motibazio horrek hizkuntza-jarreretan duen eragina gazteen edo helduen artean alderatzen duenik.

1.2 MARKO TEORIKOA

Lehenago aipatu bezala, lan honen hipotesia honakoa da: ikasleek euskara ikasteko duten motibazioak eta euskararekiko duten pertzepzioak baldintzatuko du euskararen erabilera.

Euskara ikasleez ariko garenez etengabe, lehenengo eta behin Sanchez Carrionen arabera euskara **ikasteko bi bideez** arituko gara.

Hiru eragilek eragiten dute hizkuntzaren ikastea Txepetxen esanetan; motibazioa, ezagutza eta erabilera, hirurak elkarrengandik bereziak eta aldi berean elkarren osagarriak izanik.

1. Irudia: Txepetx-en eskema





Diagrama n.º 2
Adquisición primaria (recorrido A)



Iturria: SÁNCHEZ CARRIÓN, José María. 1991.

Hiru eragile hauek, berezkoak edo izatezkoak ala kulturazkoak izan daitezke. Txepetxek, bi eratako ikaste prozesu bereizten dizkigu, bata hizkuntzarekin harreman zuzenean ematen den ikastea, haurren hizkuntzaren ikastea eta bestea bigarren mailako ikastea -behin adin batera iritsi eta gero- edo helduen eta gazteen ikastea.

Bi prozesu hauek hizkuntzaren ikasteari heltzeko moduan ezberdintzen dira. Bi prozesuak puntu ezberdinetatik abiatzen dira, haurraren kasuan erabileratik hasten da hizkuntzaren ikastea, hizkuntza erabiliz iristen da ezagutzera eta ikasten ari den neurrian berezko motibazio baten jabe egiten da. Hizkuntzaren benetako erabilera aukeren erabilgarritasunari, errealitatearen ezagupenean eskaintzen dion laguntasuna gehituz, sortzen da haurraren hizkuntzarekiko motibazioa. Izatezko motibazioa edo intrinsekua deituko dio Txepetxek motibazio honi.

Heldua, berriz, arrazoi ezberdinek eraginda hasten da hizkuntza bat ikasten, arrazoi kulturalak, profesionalak, politikoak, familiarak, erlijiosoak e.a. Motibazio honi Txepetxek Motibazio arrazionala edo estrinsekua deituko dio.

Haur batek ez badu hizkuntzaren erabilera nahikoa izaten, ez da iristen hizkuntzaren ezagupen fonetiko, lexikal edo gramatikal egokia izatera. Era berean hizkuntza ez bada erabiltzen, haurrak ez du hizkuntza horrekiko nahiko izatezko motibaziorik lortzen eta honek etsipena edo motibazio falta bat sortzen du beregan. Egoera honetan beste hizkuntza bat erakargarriagoa gerta dakioko haurrari eta honek hizkuntzaren ordezkapena ekar dezake.

Bestalde, helduen motibazio arrazionalak, hizkuntza horren ezagutza bultzatuko duen barneratze maila lortu beharko du, hiztunak hizkuntzaren ezagutza lortu eta hizkuntza hori erabiltzeko gai izan dadin. Erabilerak nahikotasun maila ez badu izaten, erabilera falta horrek konfiantza eta haserako motibazioa galtzera eraman dezake ikaslea.


Hizkuntzaren berezko ikaste batek, bere bidea jarraitu dezan, motibazioak nahikotasun maila izan behar du, hau da kontzientzia linguistikoa. Bestalde, bigarren hizkuntza ikasten duenak hizkuntza berria barneratu eta izatezko erabilera eskuratuko badu, hizkuntzaren erabilerak nahikotasun maila izan beharko du. Haurrak bere ama hizkuntzan kontzientzia linguistikoa bereganatuko badu eta heldua hizkuntzaren erabilera natural bat lortzera iritsiko bada, beharrezkoa da haurrak gehienezko erabilera eta helduak gehienezko motibazio bat izatea.

Haurrak zenbait arlotan ezin badu bere hizkuntza erabili, bere gizarte inguruan, komunikabideetan edo ikastetxean beste hizkuntza bat nagusitzen delako, bere hizkuntzaren erabilera ez da nahikoa izango motibazioa nahikotasun maila batera iristeko.

Helduaren kasuan, berriz, motibazioak nahiko maila lortzen ez badu, hizkuntza ikasteko arrazoiak izan arren, bestelako interesak aurkako joera bat hartzera bultzatuko dute

ikaslea. Kasu honetan duen motibazioa ez da nahikoa izango, beharrei aurre egin eta ikasten ari den hizkuntza horretan berezko erabilera bat izatera iristeko.

2. Irudia: Txepetxen ikaste prozesua



Iturria: SÁNCHEZ CARRIÓN, José María. 1991.

Beraz, ikusi bezala, Txepetxek nire hipotesirako ezinbesteko beste kontzeptu bat ekartzen du: motibazioa. Beraz, **motibazioa** definitu beharko dugu lehenbizi. Soziolinguistika eskuliburuaren arabera

“Kontzeptu honen inguruko hainbat eta hainbat definizio bil daiteke, eta guztien artean komunean duten ia ezaugarri bakarra da eragina duela pertsonen jokaeretan. Motibazioak azaltzen du zergatik erabakitzen duen pertsona batek ekintza bat egitea, esate baterako, hizkuntza bat ikastea edo erabiltzea; zenbateko ahalegina egingo duen eta zenbat denboraz eutsiko dion ahalegin horri. Baxoken hitzak berriro ekarriz, motibapena da ekintza edo jokabide baten iturburuan diren indar guztien bilduma (Bachoc, 2008: 63)”.

Motibazioa definituta ere, **mota desberdinak** daude: Euskararen kasurako Iñaki Martínez de Lunak hiru motibazio-iturburu bereizten ditu (Martínez de Luna, 1996: 48):

“Motibazio sinbolikoa, Euskal Herriko partaide izateari lotua; arrakasta-motibazioa, gizartearen elite sozio-ekonomiko eta politikoen hizkuntza-ereduari jarraitzeari lotua; eta ezaguna den motibazio pragmatikoa”.

Martínez de Lunaren ustez zenbat eta motibazio gehiago izan eta indar handiagokoak askoz errazagoa izango da erabilera gertatzea. Horretarako, motibazioaren indarrak inguruko baldintza oztopatzaileak (edo kontrako baldintzak) baino indartsuagoak izan beharko dira. Batzuetan motibazio hori inguruko baldintza eskasak gainditzeko nahikoa izango da, eta beste batzuetan ez.

Euskara ikasteko dauden motibazio edo arrazoiaren erakusle esanguratsua da Amorrortu eta beste (2009) egindako ikerketako taula hau:

1. Taula: Euskara ikasteko arrazoiak

Euskara ikasteko ahalegina egiteko erabakia hartzerakoan lehen eta bigarren arrazoi garrantzitsuenak		
HE INTENTADO O ME GUSTARÍA APRENDER EUSKERA...	Primer aspecto más importante	Segundo aspecto más importante
Porque es nuestra lengua	% 23,70	% 7,30
Para poder ayudar a las/los niños con los deberes	% 23,10	% 11,40
Para poder optar a más trabajos	% 17,30	% 14,90
Para poder comunicarme en euskera con las/ los vascohablantes	% 12,60	% 18,10
Para enriquecimiento personal	% 10,20	% 19,60
Por contribuir a que no se pierda	% 7,00	% 9,90
Porque en mi entorno familiar o de amistad algunos lo hablan	% 2,30	% 5,60
Por respeto a los y las vascohablantes	% 2,00	% 3,80
Por acceder al entorno cultural vasco	% 1,20	% 6,70
No contesta	% 0,60	% 2,60

Iturria: AMORRORTU eta beste. 2009.

Motibazioan eragin dezakeen beste faktore garrantzitsu bat hizkuntza bati buruz dauden aurreiritziak dira. Horrela aurkezten dute Jolyk eta Urangak Aurreiritzien gaia Soziolinguistika Liburuan:

“Tusónen arabera, Hizkuntza-aurreiritziak hizkuntzari buruzko uste orokortuak dira, beste modu batean esanda, ez-adituen hizkuntzalaritza. Uste orokortu horien eragina garrantzi handikoa da ondorio sozialak izaten dituztelako (Jesús Tusón, 1996). Amorrortu eta besteren hitzetan *hainbat talde baztertzeko bestelako aurreiritzien isla izan daitezke, eta, gainera, euskararen testuinguruan garrantzitsuagoa dena, aurreiritziok elebitasun edo eleaniztasun egoera sustatzeko sano kaltegarriak izan*

daitezke, hizkuntza txikiari eustea edo ikasteko ahalegina egitea oztopatzen dutelako”
(Amorrortu eta beste, 2009: 155).

Horrekin lotuta, bigarren hizkuntzaren jabekuntzan hizkuntza-jarrerak duten eragina aztertzen hasita, honakoa aipatzen da Soziolinguistika Eskuliburuan:

“Hizkuntzen inguruko ikerketetan ondorioztatu denez, ukipenezko egoeretan hizkuntza bat erabiltzeko, alde batera uzteko edo ikasteko orduan eragina duten jarrerak gutxienez bi dimentsio dituzte: integratzailea eta instrumentala.

Jarrera integratzaileak ikuspegi soziala eta pertsonen arteko elkarrenganako eragina islatzen dituzte. Esan daiteke hizkuntza jakin batekiko jarrera integratzaileak lotura duela hizkuntza horrekiko atxikimenduari, edo hiztun-komunitate horrekiko edo talde horren kultura-adierazpenekiko identifikazio-mailarekin. Martí eta bestek (2005) diotenez, komunitate elebakarretan jarrera integratzaileak nagusi direnez, hizkuntzarekiko eta komunitatearekiko afektuzko sentipenak sortzen dira; elebitasun- edo eleaniztasun-egoeretan, alabaina, gatazka sor daiteke, identitateen arteko tentsioak sortzen direlako (Martí eta beste, 2005: 298).

Jarrera instrumentalek hizkuntza edo aldaera horretan hitz egitearen ikuspegi pragmatikoa adierazten dute; hizkuntza edo aldaera bat onura ekonomikoarekin edo gizarte-mailan promozio aukerak handitzearekin lotzen bada, hizkuntza horrekiko jarrera instrumentalak garatuko dira. Ohikoak dira jarrera horiek, esate baterako, bigarren hizkuntza bat ikasteko orduan. Hizkuntza gutxituen kasuan, mantentzeko aukera egon daiteke hizkuntza horrek estatusa ematen duen neurrian, arrakasta soziala edo pertsonala izateko aukera handitzen bada, edota oinarritzko ziurtasuna eta biziraupenerako aukera indartzen badira (Baker, 1992: 32)”. [Joly eta Uranga 2010:212]

Jarrera integratzailea: hizkuntza horretako erkidegoaren parte izateari edo izan nahiari erantzuten dio. Hizkuntzen identitate-emate izaeran ere adierazten da, baita atxikimendu-sentimenduari ere. Hizkuntza-erkidegoaren parte direnen eta izan nahi dutenen joera adierazten du.

Jarrera integratzailea motibazio sinbolikoarekin lotzen da, eta jarrera izanarazle modura ere definitu izan da euskal tradizioan.

Jarrera instrumentala: hizkuntza edo aldaera zehatz hori hitz egiteak dakartzan onurak kontuan hartuz, horren alde ekiteko joera. Onura horiek ekonomikoak edota sozialak izan daitezke.

Jarrera instrumentala motibazio pragmatiko modura ere ulertu ohi da, arrakasta motibazio edota trukeordaineko jarrera modura ere definitzen da.

Hainbat faktorek eragiten dute hizkuntza-jarreretan: "Jarrerak konfiguratzeko orduan biltzen diren aldagaiak identifikatzea izan da jarreraren inguruko ikerketen helburu nagusietako bat. Hainbat ikertzailek faktore genetikoaren eragina azpimarratu izan dute (Robert Baron; Donn Byrne, 1998), baina ez dago, itxuraz, adostasun nahikorik aldagai horren eraginaren inguruan.

Jarrerekin jarraituz, Nekane Larrañagak Euskal Herri osoko gaztetxoaren jarreraren bilakaeraren azterketa egin zuen 1991tik 1999ra bitartean. Horretarako gazteek euskarari buruz idatzitako idazlanetan oinarritu zen. Bertan, euskararekiko bi jarrera-mota bereizi zituen: **jarrera izanarazlea** (jarrera integratzailea) eta **truke-ordaineko jarrera** (edo instrumentala). Lehenaren arabera, euskara norbere izateari edo izan-nahiari lotuta agertzen da honako iritziei lotuta: Euskara gure hizkuntza da, euskaldun egiten gaitu, hizkuntza zaharra da, mantendu beharreko tradizioa da, Euskal Herriaren izaera eta oinarria hizkuntza da... Truke-ordaineko jarreraren arabera, aldiz, euskara ikasiz gero zerbait jasoko da, esate baterako, lana topatzeko, ikasketetarako nahiz komunikaziorako baliagarria izango da...

Biak jarrera positiboak izan arren, lehenak eraginkorragoak direla ondorioztatu du ikertzaile horrek euskararen aldeko jokoak (jokaera positiboak) aurreikusteko orduan (Larrañaga, 1992: 249). Ikerketa honen emaitzetan bada azpimarratzeko ondorio bat: euskal gaztetxoaren euskararekiko joerak denbora-tarte horretan berdintsuak izan arren, truke-ordaineko jarrera indartu egin da, hau da jarrera instrumentala garrantzia hartzen ari da denboran zehar".

Hizkuntza-jarreraren eta erabileraren arteko lotura

Hizkuntza jarrerak eragina dute erabileran, bai ikasle gazteetan, bai helduetan. Gazteek ari bagara, Nekane Larrañagaren "Euskal gaztetxoaren jarrerak euskararen etorkizuna aurreikusten" artikuluan datu bat jartzen du mahai gainean: gazteen euskararen **erabilera ezagutzaren azpitikoa** da.

"Azken urteetan euskararen normalizazio bidean, irakaskuntzaren bidez, euskararen ezagutza zabaltzen egin dira batez ere ahaleginak. Ondorioz, asko gehitu da euskara

eta euskaraz ikasi izan duten gaztetxoek taldea; baina badakigu, gazte hauen artean euskararen ezagupena hainbat ez dela ugartu hizkuntza honen erabilpena. Eta jakina, gazteek erabiltzen ez duten hizkuntzak ez du oso argi bere etorkizuna.

Beraz, nahiz eta 13/14 urteko gazte ia guztiak euskara ikastera edo behintzat ezagutzera iritsi badira ere, erabileran ez da horrelakorik gertatu. Nahiz eta gazteek lehen baino gehiago erabili, oraindik erdarara jotzen dute gehien bat euren artean harremantzeko. Euskara ondo dakitenek gehitxoago erabiltzen dute, baina erdizka baino ez dakitenek ez dute euskararako joerarik erakusten.

Horren atzean, baina, **euskararen balioaren** kontzeptua dago. Zertarako uste dute gazteek erabili daitekeela euskara? Larrañagak honakoa dio horri buruz:

“Gaztetxoek artean euskarari buruzko jarrerak neurtzeko hainbat gai aztertu ondoren - 20 item ezberdin erabili ziren Lickert eskala batean-, argi ikusten da, alde batetik, gazteen gehiengoak euskararen normalizazioaren alde dagoela, baina, bestetik, iritziak banatuak agertzen direla euskarak zertarako balio duen adierazterakoan. Gazte batzuek euskara euskaldun izaerarekin lotzen dute; beste batzuek, berriz, lan aukerarekin lotzen dute hizkuntza hau”.

Ondorengo taulan ikus daitekeenez, gazteen iritziak banatuta agertzen dira euskara eta norbere izanarekin egiten duten lotura ezberdinetan, eta baita euskararen beharizan pragmatikoaren aurrean ere. Hain zuzen ere bi gai hauen inguruan: euskaldun izateko euskara jakin behar da edo lana topatzeko duen balioaren inguruan.

2. Taula: EUSKARAREKIKO JARRERA BEREIZGARRIENAK (13/14 URTEKO GAZTEAK Guztira 3.655 1991)

EUSKARAK LANA TOPATZEKO BAKARRIK BALIO DU	Guztira 3.655 %	E.A.E.	NAFARROA	IPARRALDEA
Ados	37,0	43,7	21,8	12,4
Aurka	49,8	45,2	55,4	75,7
EZ DA EUSKARARIK JAKIN BEHAR EUSKALDUNA IZATEKO	Guztira 3.655 %	E.A.E.	NAFARROA	IPARRALDEA
Ados	48,5	46,3	53,5	56,8
Aurka	34,8	37,9	22,0	34,0
NAHIAGO DUT INGELESA IKASI	Guztira 3.655	E.A.E.	NAFARROA	IPARRALDEA

EUSKARA BAINO	%			
Ados	34,3	28,4	51,8	49,1
Aurka	46,3	51,2	32,5	32,8
EZ DAGO EUSKALERRIRIK EUSKARARIK GABE	Guztira 3.655 %	E.A.E.	NAFARROA	IPARRALDEA
Ados	67,7	72,3	42,5	78,4
Aurka	15,8	15,6	17,7	13,9

ITURRIA: N.Larrañaga: 1996

Larrañagaren ikerketan ondorio batzuk atera ziren. Horien arabera, gaztetxoek eragile izanera zehaztean euskara euskaldun izan nahiari eta euskal identitateari lotzen zaio. Trukeordaineko eragileetan, ordea, gazte batzuek euskara lana aurkitzeko, ikasketetarako edo tituluak ateratzeko bide gisa baino ez dute ikusten.

Euskararen **erabileran jarrera izanera zehazteko eragina** aztertu duenean, emaitzak hauek izan dira:

“Euskara ikasi duten gazteek, hizkuntza honekiko dituzten jarrera, asmo eta nahiak, beraien hizkuntz jokabideetan -hizkuntza ikasi eta erabiltzean- erabakiorrak dira.

Orain arte gaztetxoek inguruan egin izan ditugun ikerlanetan garbi azaltzen da, gazteek euskararekiko zer-nolako jarrera duen erabakiorra dela gazte honek egingo duen hizkuntza aukeran. Jarrera izanera zehazteko adierazten duten gaztetxoak eta batez ere euskara euskaldun izaerarekin lotzen dutenak dira, euskara gehien erabiltzeko joera dutenak”.

3. Taula: **EUSKARAREKIKO JARRERA ETA HIZKUNTZA ERABILERA**

(13/14URTEKO GAZTETXOAK EUSKALERRIKOAK Guztira 3.655)

Zeharkako ehunekoak %	GAZTELERA ERABILTZEN DU BETI EDO IA BETI	BI HIZKUNTZEN ERABILERA	EUSKARA ERABILTZEN DU BETI EDO IA BETI
EUSKARAK LANA TOPATZEKO BAKARRIK BALIO DU %100	86,5	04,0	08,1
EUSKARAK EZ DU LANA TOPATZEKO BAKARRIK BALIO %100	67,8	08,7	22,3

EUSKALDUNA IZATEKO EUSKARA JAKIN BEHAR DA %100	57,7	09,9	31,3
EZ DA EUSKARA JAKIN BEHAR EUSKALDUNA IZATEKO %100	89,3	04,2	05,5

ITURRIA: N.Larrañaga: 1996.

Orain arte gazteen motibazioaz ari izan gara. **Helduen motibazioei** erreparatuta, berriz, Nekane Arratibelek bere tesiaren laburpenean adierazten duenaren arabera, Gardner-ek (1985) planteaturik orientazio integratzaile, komunikatzaile eta instrumentaletik

“Gardner-ek (1985) planteaturiko orientazio integratzaile, komunikatzaile eta instrumentaletik, integratzailea dena aurkitu dugu eta antzera funtzionatzen du gure egoeran ere. Baina orientazio komunikatzailea ez da bereziki gure testuinguruan agertzen, orientazio mota honi dagozkion itemak orientazio integratzaileari dagozkionekin batera agertzen direlarik. Honen arrazoia izan liteke beste bigarren hizkuntza batzuk atzerriko jendearekin komunikatzeko balio dutela eta euskarak ez duela gaitasun hori”. (Arratibel, N. 1999).

Gainera, Arratibelen ustez, orientazio instrumentala orientazio motibazional berezia da, gure testuinguruan ere aurkitu dugulako. Baina orientazio hori beste modu batean aurkitzen da hemen: alde batetik, lan munduarekin eta horrek ekartzen duen irabaziekin lotutakoa (instrumental-laborala deitzen dio Arratibelek); eta, bestetik, beste mota bateko irabaziekin, pertsonarentzat hautazkoagoak direnekin lotutakoa (instrumental-pragmatikoa Arratibelentzat). Transmisio motako orientazio motibazionalak ere sailkatzen ditu Arratibelek.

Azkenik, bere tesiaren ondorio teorikoen artean badago honekin guztiarekin erlazionatutako ideia garrantzitsu bat, motibazioari eta erabilerari lotutakoa. Ondorio horren arabera, motibazioak jarreteran eragin dezake:

“Prozesu psikosozialen artean motibazioa, identitate etnolinguistikoa eta jarrerak garrantzitsuak gertatzen dira (baina ez bizitasun etnolinguistiko subjektiboa), baita beraien arteko erlazioa ere, guzti honen bitartez euskalduntzea ulertzeko, eta d) euskalduntzea zuzenean esplikatzen da aipatutako prozesu psikosozialen arabera, baina baita sare sozialaren arabera ere, azken hau emaitza enpiriko berria izanik” (Arratibel, N. 1999).

Hizkuntza-jarreraren eta gizarte-ezaugarrien arteko lotura

Bestalde, motibazioen faktoreak garrantzia izanda ere, Nekane Larrañagaren ustez euskararekiko jarrerak ezberdinak dira **gizarte-ezaugarri ezberdinen arabera**. Hori ere kontuan izango dugu lan honetan:

“Euskararekiko jarrerak ezberdinak dira gaztetxoek gizarte ezaugarriak aldatzen diren eran. Badira gizarte ezaugarri batzuk, euskararekiko jarrerak osatzen eragin nabarmena dutenak. Gizarte ezaugarri hauek euskararekiko jarrerekin duten lotura errepikatu egiten da guk eginiko bi ikerketetan:

Larrañagaren esanetan, gaztetxoek jarrera desberdinak adierazten dituzte ikastetxe motaren, hizkuntza ereduaren eta ama hizkuntzaren arabera.

Hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko lotura:

Bistakoa da hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko lotura egon badagoela. Ezin da hizkuntza bat erabili hizkuntza horren jabe izan gabe. Halaber, erabilera hizkuntza horren gaitasunaren mailaren arabera ere izan daiteke.

Iñaki Martínez de Lunak (Martinez de Luna: 2004) dioenaren arabera,

“Euskal Herriko gaztetxoengan euskarazko gaitasuna helduen artean baino askoz hedatuagoa den arren (Iparraldean salbu), horrek badu bere alde iluna: euskaldun horiek duten euskara eta erdaren arteko gaitasun erlatiboarena, hain zuzen. Izan ere, sarri ahazten zaigu euskaldun gehienek erdara ere badakitela, eta, kasu askotan, euskara bera baino hobeto. Horixe gertatzen da gaztetxo askorekin: %44 Nafarroan, %49 EAEn, eta %46 Iparraldean.

Martinez de Lunaren arabera, gaitasun eskasa dagoen kasuetan erabilera eza gertatuko da. Izan ere, nerabe elebidun gehieneik erraztasun handiagoa dute erdaraz, eta, ondorioz erdararako joera izango dute. Gainera, gurpil-zoro bat da hori Martinez de Lunaren iritziz: gaitasunik ezak erabilera eza dakar, eta erabilera ezak gaitasuna gutxitzea.

Euskararen erabilera eragozten duten arrazoiak

Erabileran eragiten duten faktoreak aztertu ostean, euskararen erabilera eragozten duten arrazoiak errepikatuko diegu. Hauek dira Martínez de Lunaren lanaren arabera euskararen erabilera eragozten duten arrazoi nagusiak:

Euskara norbanako mailan

- Gaitasuna
 - Gaitasunik ez dutenak gehiengoa dira.
 - Euskaldun askoren gaitasun erlatibo eskasa.
 - Lekuan lekuko aldaera edo euskara batua ez jakitea.
- Motibazioa
 - Interes apala.
 - Motibazio izanarazleen ahulezia.
 - Trukeordaineko motibazio apala.
 - Euskarazko 'gizarte arrakasta'-ren eredurik eza.

Euskara gizarte egoeren mailan (gizartearen maila mikroan)

- Baldintza demolinguistikoak
 - Euskaldunen familia eta kale ingurune erdaldunak.
- Harreman sareak
 - Euskarazko harreman sarerik eza.
 - Euskarazko harreman sare berriak osatzeko zailtasuna

Euskara gizarte eremuen mailan (gizartearen maila makroan)

- Hizkuntzaren ageriko onarpena
 - Euskarak ez du estatus ofizialik edo ez behar bezalakorik.
 - Euskararen estatusik eza gizarte eremuetan.
- Hizkuntzaren erakargarritasuna eta ospea
 - Funtzioen aldetik, euskara bigarren mailako hizkuntzaren irudia.
 - Baserriari atxikitako irudia, ez modernitateari.
 - Irudi politizatua eta marjinaltasunari lotua. [Martinez de Luna 2004]

Hizkuntza-jarrerak eta erabilera albo batera utzita, goazen beste alderdi bat ere aztertzeraz: **adina**. Nire lana adinaren araberrako alderaketa batean datza. Hori dela eta, oso baliagarria eta nik egindako sailkapenerako egokia da, beraz, Ane Ortega eta bestek egiten duten adinaren araberrako azterketa, **ikasketa-esperientziari erreparatzen diotenean adinari lotuta:**

“1970 hamarkada amaieran, euskararen inguruko hizkuntza-politika abian jartzearekin batera, EAEn aldaketa historiko garrantzizkoa gertatu zen euskarari dagokionean, helduen euskalduntze-alfabetatzearen arrakastarengatik eta, batez ere, euskarak

hezkuntza-sistema arautuan hartu zuen lekuagatik. Harez gero, asko eta asko dira euskara etxetik kanpo ikasi duten pertsonak, lehen ez bezala. Horien artean, ordea, bi talde bereizi dira ikasketa-adinaren eta -motaren arabera” (Ane Ortega eta beste, 2013).

Ortega eta besteren sailkapenaren arabera, alde batetik gaur egun 35-40 urte baino gehiago duten euskal hiztun berriak daude. Horietako gehienek euskara helduak zirela ikasi dute, batez ere euskaltegietan, haurrak zirela ez zutelako euskara ikasteko aukerarik izan. Horietako askok motibazio ideologikoen bultzatuta ikasi dute euskara (identitate balioari lotuta). Hala ere, azken urteetan euskara arrazoi instrumentalengatik ikasi duten pertsona nagusien kopuruak gora egin du, lan-egoerak bultzatuta.

Beste taldea gaur egun 35-40 urte baino gutxiago duten hiztun berriena da. Talde horretako hiztun gehienek euskara eskolan ikasi dute.

“Bi talde horien artean desberdintasun nabarmenak antzematen dira gure datuen arabera, bai euskara ikasteko motibazioari dagokionez, bai euskararekiko erakusten duten konpromiso desberdinagatik, eta baita euskara ikasteak ekarri dien onurari dagokionean ere”. (Ane Ortega eta beste, 2013).

Ortega eta bestek diotenez, lehenengo taldearen artean, motibazio nagusia aberaste pertsonala da: euskararen berreskuratze prozesuan parte hartzea, integrazioa eta abar. Euskara ikasteko denbora eta ahalegin berezia behar izan dute, baina, era berean, euskara ikasteak onura handiak ekarri dizkiela aitortzen dute.

Bigarren taldekoek, ostera, euskara berez eta modu naturalean ikasi dute eta horrela bizi dute eurek ere. Izan ere, euskara ikasteko erabakia ez zen euren izan, euren gurasoena baizik, eta euskara beti egon da presente euren bizitzetan.

Ondorioz:

Bi talde horien artean euskarari buruzko hautemateak eta atxikimendua oso desberdinak dira, baita erabiltzeko konpromisoa eta modua ere. Halaber, egoera elebidunak kudeatzeko orduan hartzen duten jarrera edota euskararen etorkizuna irudikatzen modua ere desberdina dute. Azpimarra daiteke, azkenik, euskal hiztun moduan euskararekiko eta komunitatearekiko duten ardura ere ez dela berdina agertzen bi talde horietan. Ikerketa honetan belaunaldi gazteenei arreta berezia jarri diegunez, artikuluko honetako 4. atalean gai honetara itzuliko gara” (Ane Ortega eta beste, 2013: 156-157).

1.3 LANAREN HELBURUAK

Lanaren helburua bi adin tarteren arteko konparazioa egitea da, euskara ikasteko prozesuan zehar izandako bizipenetan, euskara ikastera bultzatu dituen arrazoietan eta euskararen inguruko jarreretan eta pertzepzioetan.


1.3.1 BILBOKO DATUAK

Lanaren muina diren solaskide guztiak Bilbokoak direnez, garrantzitsua iruditu zait Bilboren argazki orokorra egitea.

Bilbo Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan dago. Lurralde historikoa Bizkaia da, eta lurralde historiko horretako hiriburua da Bilbo. 352.000 biztanle inguru ditu momentu honetan.

Demografiari erreparatuta 30 eta 55 urte artekoa da biztanleria kopururik esanguratsuena, eta emakume kopurua gizonena baino handiagoa da. Ikus datorren piramidea:

3.irudia: Bilboko biztanleria 2012an



Iturria: INE

Halaber, Bilbo atzerriko immigrazio-fluxurik handienetakoa izan duen euskal hiria izan da. Izan ere, erroldatutako biztanleetatik 25.000 atzerritarak dira, 125 nazionalitate ezberdinetakoak. Espainiar estatutik kanpoko immigrazioa berantiarra goa izan bada ere, Estatu barruko immigrazio handia izan zuen Bilbok, industrializazio garaian batez ere.

Euskarari dagokionean, hona hemen Bilboko Udalaren webgunean egiten den egoeraren deskribapena:

“Euskararen egoera asko aldatu da Bilbon azken urteotan.

1981etik 2006 urtera euskeraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten duten pertsonen kopurua eta, nekez hitz egin arren, ondo ulertzen dutenena handitu egin da, eta gaur egun Bilboko biztanleria osoaren %48a da; hau da, gutxi gorabehera, 165.000 pertsona. Horietatik erdia baino gehiago 34 urtetik beherako gazteak dira.

Bilboko barrutirik euskaldunenak Deustu, Ibaiondo, Abando eta Begoña dira euskaraz hitz egin edo euskara ulertzeko gai diren biztanleriaren %60a (100.000 pertsona) biltzen baitute.

Esan beharra dago euskara, ama-hizkuntza gisa, gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa oso txikia dela eta juxtu-juxtu biztanleriaren %5ak jaso izan duela euskara bere gurasoengandik. Hortaz, suposatuta behar da euskeraz dakiten gainerako biztanleek irakaskuntzari edo euskaltegiei esker ikasi dutela.

Hizkuntzaren transmisioan gurasoen hizkuntza gaitasunak berebiziko garrantzia du. Gurasoek euskararik ez badakite, erdara izango da seme-alabei transmitituko dieten hizkuntza. Bakarrik guraso biak euskaldunak direnean edo bietako bat euskalduna denean gerta daitezke irabaziak euskararen transmisioan.

Hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, 1986 urtetik 2006 urtera bitartean, aldaketarik aipagarriena euskaldun berrien eta erdaldun zaharren kopuruetan gertatu izan da; 20 urte horietan 45.000 euskaldun berri gehiago daude eta 73.000 erdaldun zahar gutxiago.

Euskaraz hitz egiteko gai direnen artean %10ak euskara erabiltzen du etxean. Baina, egia esan, etxeko erabileran eragin zuzena du familiako euskaldunen dentsitateak; zenbat eta familiakide euskaldun gehiago izan, orduan eta euskara gehiago egin ahal izango da etxean.


Normala denez, euskaldun zaharren artean dago euskaraz aktiboak direnen kopururik handiena.

Euskaraz hitz egiten dakitenen kopurua handituz doa urtez urte; ez, ordea, erabilera”.

Ildo beretik, Bilboko Udalaren datuen arabera, hau da etxeko erabileraren tipologia 5 urteko eta hortik gorako Bilboko biztanleen artean.

4. Irudia: etxeko erabileraren tipologia Bilboko biztanleen artean

- Etxeko erabileraren tipologia 5 urteko eta hortik gorako Bilboko biztanleen artean (1991-2006).



	1991		1996		2001		2006	
Aktiboak euskaraz	5.469	%15,88	5.223	%10,55	5.768	%11,24	8.664	%10,71
Bietan aktiboak	10.245	%29,76	12.387	%25,01	9.538	%18,59	9.130	%11,29
Pasiboak euskaraz	18.715	%54,36	31.909	%64,44	35.996	%70,16	63.109	%78,01
GUZTIRA	34.429	%100	49.519	%100	51.302	%100	80.903	%100


Iturria: Bilboko Udala

Taulan ageri den modura, Bilbon euskaraz pasiboak diren pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora. Bereziki esanguratsua da euskaraz aktiboak diren pertsonen beherakada. Era berean, bi hizkuntzetan aktiboak diren pertsona kopuruak ere behera egin du.

Euskara-mailari erreparatuta, hau da 2 urteko eta hortik gorako Bilboko biztanleen euskara-maila:

5. Irudia: Bilboko euskara-maila

- 2 urteko eta hortik gorako Bilboko biztanleen euskara maila (1981-2006).



	1981		1986		1991		1996		2001		2006	
Euskaldunak	23.979	%6,25	33.935	%9,07	35.061	%9,63	50.758	%14,37	53.051	%15,49	83.354	%24,30
Ia-euskaldunak	58.408	%15,22	76.083	%20,33	80.856	%22,21	82.455	%23,35	91.204	%26,64	82.339	%24,00
Erdaldunak	301.430	%78,53	264.189	%70,60	248.158	%68,16	219.982	%62,28	198.127	%57,87	177.379	%51,70
Guztira	383.817	%100	374.207	%100	364.075	%100	353.195	%100	342.382	%100	343.072	%100

Iturria: Bilboko Udala

Ikusten den bezala, oraindik ere (nahiz eta azken urteetan euskaldun kopuruak gora egin duen) Bilbon pertsonen ehuneko handiena erdalduna da. Hala ere, bai ia euskaldunen eta euskaldunen kopurua gero eta handiagoa da. Gainera, gaur egun euskaldunen eta ia euskaldunen kopuruak parekatu dira, eta euskaldunen eta ia euskaldunen kopuruak batuta ia-ia erdaldunen kopurua berdintzen da.

2. METODOLOGIA

2.1. Datuak biltzeko metodoa

Ikerketa hau metodo kualitatiboari jarraituz egin da. Horretarako, eztabaida-taldeak edo *focus group* izenekoak egin dira. Txema Egañak MUREn webguneko *Atabala* blogean esaten duenaren arabera, “Ikerketa kualitatiboan asko erabiltzen den teknika da eztabaida taldeena, bide egokia delako ikertzen den errealitatearen diskurtso soziala atzitzeko”.

Eztabaida-taldeen bidez lortu nahi dena da subjektuek beren hitzez espresatzea ikerketa objektuarekiko dituzten sentimendu, kezka eta esperientziak, hari buruz daukaten informazioa, beti ere ikerlariaren eta taldeko beste kideen laguntzarekin:

“[En los grupos de discusión] Se quiere reflejar la experiencia (social, educativa, profesional, vital) tal cual la perciben o la entienden, la construyen y la organizan, y la analizan o la evalúan, dándoles un determinado sentido dentro del contexto en que tiene lugar” (Suarez, 2005:36).

Eztabaida-taldeek aukera ematen dute ikerketa-gaia protagonistekin lantzeko, eguneroko errealitatean beren iritziak ekoitzi, espresatu eta elkartrukatzen dituzten antzera. Gainera, talde hauetan sozialki partekatzen ez diren iritzi pertsonalak taldeak zuzentzen ditu, eta, era horretan, baieztapenak eta ikuspegiak taldeak berretsitakoak izaten dira:

A primary difference between focus group research and other types of research such as surveys, individual interviews and laboratory experiments is that data collect occurs in, and is facilitated by a group setting (Stewart, Shamdasani, 2007)

Metodologia hau solasaldian eta hizkuntzan oinarritutako teknika bada ere, ez da taldeari egiten zaion elkarrizketa bat, ez eta partaide diren kide guztiei egiten zaien elkarrizketen batuketa: “Cada interlocutor no es una entidad sino un proceso. Proceso porque en el transcurso de una conversación, cambian sus partes en la misma medida en que se va organizando y cambiando del todo” (Canales eta Peinado, 1998:294)

“Helburu nagusia gai bati buruz aukeratutako lagun taldekideek dituzten uste, jarrera eta sentipenei buruz, eta gai horien inguruan izan duten esperientziari buruz informazioa eman dezaten aukera sortzea da, horretarako berariaz antolaturiko elkarrizketa edo eztabaidaren bitartez. Metodo hau oso egokia da gai baten ikuspegi anitza azaleratzeko eta arrakastatsua izango da, besteak beste, eztabaidaren moderatzaileak bere lana modu egokian egiten badu. Teknika hau merkatu-ikerketetan aspaldidanik erabiltzen da eta beste arlo batzuetan oso ohikoa da, hala nola osasun-langile eta gaixoen arteko komunikazioari buruzko ikerketetan eta mota guztietako jarreraren ikerketetan.

Lehen esan bezala, moderatzailearen lana oso garrantzitsua da, malgua izan behar du baina eztabaida aukeratu den gaitik gehiegi ez aldentzeko ahaleginak egin behar ditu. Horretarako, gaitegi bat eraman ohi du ekitaldietara. Solaskideak eroso sentitu behar dira taldeari bere sentipen eta iritziak adierazteko, plazaratzen diren gaii buruz hausnarketa egiteko, eta beste kideek ematen dituzten ikuspegi ezberdinak ere aintzakotzat hartzeko. Helburu horiek bete daitezten, ezinbestekoa da giro egoki eta erlaxatua egotea, solaskideak eroso sentitzea.

Bestalde, hasieratik eztabaida-gaia zelan plazaratzen den oso garrantzitsua a. Metodo zuzenek dituzten mugak saihesteko, ez da komeni zuzenean partaideei ikerketaren helburuak argitzea.” (Amorrortu, 2009)

Horretarako, euskararekiko jarrerak, uste eta aurreiritziak aztertu nahi zela esan ordez, euren euskara-maila neurtzeko, gai batzuen inguruan hitz egiteko aitzakia baino ez zela esan zitzaizen ikasleei.

Ni neu ibili naiz moderatzaile lanetan eztabaida-talde guztietan, eta eztabaida bideratzeko galdetegi bat neukan, blokeetan banatua, ildo nagusiak jorratzeko eta puntu batzuez hitz egiten zela bermatzeko. Hala ere, talde guztietan ez dira galdera guzti-guztiak egin (batzuetan eztabaida beste bide batzuetatik joan zelako) eta talde gehienetan galdetegian agertzen ez ziren gaiak ere atera dira.

Galdetegiaren eskema eta bere atalak izango dira gero datuen azterketarako eta interpretaziorako erabiliko den gida. Galdetegiak honako atalak izango ditu: arrazoiak eta bizipenak, erabilera, zailtasunak eta frustrazioak, kontzientzia-maila eta aurrera begira.

Arrazoietan eta bizipenetan aztertu nahi da zer bizipen izan duten euskara ikasterako orduan, ze esfortzu eskatu dien ikasteak, zelan sentitu diren ikasten eta ze ekarpen egin dien ikasketa-prozesu horrek. Erabileran euskararen erabilera-esparruak eta testuinguruak aztertu nahi dira: ze egoeratan eta norekin hitz egiten duten ikasleek euskaraz, zergatik egiten duten horrela eta zelan sentitzen diren testuinguru horietan euskara erabiltzen dutenean. Zailtasunetan eta frustrazioetan euskara ikasteen zailena zer egin zaien jakitea da asmoa, ze oztopo izan duten ikasterako orduan, momenturen batean etsitzeko gogoia izan duten eta horrela izan bada etsipen horri aurre egiteko mekanismoak zeintzuk izan diren. Kontzientzia-mailan euskaraz jakitea edo ikastea beharrezko edo komenigarri ikusten duten aztertuko dugu, ea gizartean euskara bultzatzeko nahikoa egiten dela ikusten duten, euren ustez zer egin beharko litzatekeen euskara bultzatzeko eta eurak zer egiteko prest dauden horretarako. Eta, azkenik, aurrera begira ikasleek euren ikasketa-prozesua nola irudikatzen duten adieraziko da, ze euskara-maila lortzeko esperantza duten ikasleek eta etorkizunean ze leku uste duten (edo nola izatea gustatuko litzatekeen) beteko duela euskara bakoitzaren bizitzetan. (ikus 1. eranskina).

Saio guztiak grabatzeko baimena eskatu nien ikasleei, eta grabatzen ari nintzela jakiteak euren erantzunak eta jarrerak neurri txiki batean moldatu baditu ere, ez zuten inolako arazorik izan horretarako. Momentu oro euren konfidentziasuna gordeko zela bermatu zaie

parte hartzaileei. Eztabaida-saioak eta gero saio horien transkripzioa egin da, esandakoak idatziz jasota izateko.

Urte osoan zeharreko ikasle-irakasle harreman nahiko ona izan dugunez, orokorrean oso giro lasaian eta informalean eraman dira aurrera eztabaida-talde guztiak. Taldekideek eroso daudela adierazi dute eztabaidaren amaieran eta euren iritziak garbi eta oztoporik gabe eman dituztela. Giro onaren eta parte hartzaileen jarreraren adierazgarri da ordu erdian egitea kalkulatuta zeuden saioak, kasu batzuetan, ordu batera arte luzatu direla. Euren iritziak emateaz gain, istorio eta anekdota pertsonalez josita daude jaso diren eztabaida-saioetako gehienak.

2.2. Solaskideak

Ikerketan parte hartu duten solaskideak bi taldetan banatu behar dira lehenengo eta behin. Alde batetik, Begoñazpi ikastolako 20 ikasleak. Talde bakarrean badaude ere, eztabaida-taldeak egiteko lau taldetan banatu ditut, talde bakoitzean 5 pertsona. 20 ikasleko eztabaida-talde bakarra eginez gero izaera zabalenerako kideek bakarrik hartuko zuketena parte eta besteek iritzirik ez litzateke jasoko. Talde txikietan eginda, ikasle guztiek parte hartu dute eta eroso sentitu dira.

Beste taldea, ikasle helduena, sei taldetan banatuta badago ere, nik launa ikasleko taldeetan batu ditut eztabaida-taldea egiteko. Talde horietako lau talde naturalak dira, hau da, klaseak emateko taldeak mantendu ditut. Horrez gain, bi ikaslekoak ziren bi taldeak batu ditut. Izan ere, lau ikasleren arteko eztabaida biren artekoa baino aberasgarriagoa zela iruditu zait, eta, gainera, kasualitatez, bi talde txiki horiek nahiko ezaugarri antzekodunak dira (bai adin, bai euskara-maila aldetik). Hori dela eta, egoki iritzi diot bi talde bakarrean biltzeari.

Eztabaida-talde guztiak euskaraz egin dira, bat izan ezik: helduen taldeetako batek. Talde horretako partaideen euskara-maila ez zen nahikoa adierazi nahi zutena euskaraz adierazteko, eta, horregatik, erdaraz egitea nahiago izan zuten. Horrela, ideiak modu erosoagoan eta sakonagoak adierazi ahal izango zituztelakoan.

Eztabaida-taldeetako lagina aztertzen hasita ere, bi taldeak bereiziko ditugu:

Esan bezala, gazteak guztira hogeita izan dira. Guztiak 14-15 urtekoak eta DBH3 maila egiten ari zirenak, D ereduaren. Guztiak Bilbokoak. Gazteen taldean hogeitik sei mutil zeuden eta hamalau neska. Horietatik guztiek zuten euskaraz normaltasunez eta jariotasunez hitz egiteko gaitasuna. Hala ere, guztiek bik izan ezik euskara ikastolan bertan ikasi zuten, guraso

erdaldunak dituztelako. Eta ez da kasualitatea lagin honetako proportzioa. Izan ere, Begpñazpi ikastolako DBH osoko ikasleen datuak hartuta, % 10ek baino ez du euskara etxean ikasi.

Helduen taldea ere hogeitartekoak zen. Talde horretako partaideen adin-tartea aurrekoena baino zabalagoa zen: 35-55 urte artekoa. Guztiak Bilbokoak. Horien erdia (10) gizonezkoa zen, eta beste erdia (10) emakumezkoa. Ikasketa-maila kontuan hartuta, parte hartzaile heldu guztiek goi-mailako ikasketak dituzte. Hizkuntza gaitasunari erreparatuz, 8k oso ondo hitz egiten dute, 4k nahiko, 4k ez oso ondo eta 4k ia bat ere ez. Guztiek bik izan ezik erdara hutsezko eremuan ikasi dute eta familia erdaldunetakoak dira. Euskara helduaroan ikasten hasitakoak dira.

2.3. Datuak aztertzeke metodoa

Lehen aipatu bezala, datuak aztertzerako orduan galdetegiaren eskemari jarraitu zaio. Beraz, datu horiek bost atal hauen arabera aztertu dira: arrazoiak eta bizipenak, erabilera, zailtasunak eta frustrazioak, kontzientzia-maila eta aurrera begira.

Hala ere, esan behar da kasu batzuetan hitz-hartze bakoitza atal bakarrean kokatzea zaila dela, parte hartzaileek gaiei nahasian heldu dietelako eta berba hartze horretan atal bati baino gehiagori egiten diolako erreferentzia.

2.4. Metodologiaren ebaluazioa

Erabilitako metodologia oso baliagarria izan da ikerketak bilatzen zuena lortzeko, parte hartzaileek modu aske eta zintzoan euskara ikasteko prozesuan zehar izandako bizipenak, euskara ikastera bultzatu dituzten arrazoiak eta euskararen inguruko jarrerak eta pertzepzioak azaltzea alegia.

Solaskideak konfiantza-giroan eta ezagunak zituzten beste solaskideekin egon direnez, iritziak eta bizipenak lasai bota dituzte, eta gainera, bakarkako elkarrizketa batean gertatuko ez litzatekeen bezala, besteen bizipenetatik eta istorioetatik eratorritako iritziak eta ekarpen interesgarriak egin dituzte. Horrela, eztabaida guztiak oso interesgarriak eta aberatsak izan dira.

3. DATUEN AZTERKETA ATALKA

Arestian aipatu bezala, eztabaida-taldeak bi taldetan banatuta egin dira: gazteena eta helduena. Gazteekin lau talde egin dira (5 ikasle talde bakoitzean) eta helduekin bost (4 ikasle

talde bakoitzean). Eztabaida-taldeak gidatzeko, moderatzaileak aurrez erantsitako galdetegia izan du. Galdetegi horretako atalak izango dira (arrazoiak eta bizipenak, erabilera, zailtasunak eta frustrazioak, kontzientzia-maila eta aurrera begira) eztabaida-taldeetatik eratorritako ideiak aztertzeko eta sailkatzeko erabiliko direnak.

Atal bakoitzaren azterketa egiteko, lehenengo sarrera eta helburuak adieraziko dira, ondoren atal horretako aipurik esanguratsuenak zeintzuk izan diren zehaztuko da, eta, amaitzeko, aipu horietatik ateratako ideien ondorioak.

3.1 ARRAZOIAK ETA BIZIPENAK

Atal honetan ikasleen euskara ikasteko arrazoiak zeintzuk izan ziren aztertu nahi da: zer bizipen izan duten euskara ikasterako orduan, ze esfortzu eskatu dien ikasteak, zelan sentitu diren ikasten eta ze ekarpen egin dien ikasketa-prozesu horrek.

Ikasle helduenen euskara ikasten hasteko arrazoiak ideologikoak edo euskararenganako edo Euskal Herriarenganako sentimenduzkoak izan dira:

“Niretzat euskara definitzeko hitzik aproposena sentimendua da. Nire arrazoiak ez dira akademikoak ez ezer. Barruan daramadan zerbait da eta hori beste edozein arrazoi baino indartsuagoa da”.

Horren barruan, sentimenduaz gain, euskal identitatearekin lotutako arrazoiak ere badaude:

“Sentimenduagatik hasi nintzen, euskalduna sentitzen nintzelako”.

Halaber, galdutako ondare bat berreskuratzearen sentimenduak garrantzia berezia du:

“Aitonak bazekien euskaraz eta aitak ez. Horregatik, aitonarekin bere hizkuntzan hitz egin ahal izateko ikasi nuen”.

Euskara ikasteak politikarekin zuen lotura nabarmentzen dute:

“Pisu batean hasi nintzen euskara-klaseak hartzen. Orduan oso aukera gutxi zegoen ikasteko, eta ez zegoen oso antolatuta. Gainera, politikarekin zegoen lotuta. Klasea ematen zutenak ez ziren garbiak, oso politizatuta zegoen”.

“13 urterekin parroketan hasi ginen. Euskadiko Ezkerrako jendea zen hori mugitzen zuena”.

“ Empecé a aprender euskara a los 13 años por primera vez, en unas clases furtivas que se organizaban en el colegio. Gente afín al euskera y al país. Todos los días íbamos

media hora antes a la escuela y unos profesores nos daban clases. Así un año. Luego hubo mucho lío: comentarios, broncas (nos dedicábamos a pintar ikurriñas en el encerado)..”.

Seme-alabei hizkuntza transmititzeko nahia ere bazegoen euskara ikasten hasteko arrazoi nagusien artean:

“Semeekin euskaraz hitz egin nahi nuen. Hasieran txikiarekin beti euskaraz egitea lortu nuen, bigarrenarekin gutxiago eta hirugarrenarekin ia ezer ere ez. Orain polizia bezala ibiltzen naiz”.

Ikasle gazteek, berriz, modu naturalean (gutxienek etxean eta gehienek ikastolan bertan) ikasi zuten euskara. Ez zen, beraz, haien erabaki pertsonala izan euskara ikasten hastea:

“Bi urterekin ikasi neban euskera, ikastolan. Gurasoek ez ekien euskeraz berba egiten”.

“Nik betidanik dakit euskeraz etxean euskera eta gaztelania entzun izan dodazalako. Ikastolan praktikan jarri neban etxean ikasitakoa”.

Ikasle helduek euren kabuz eta hezkuntza araututik kanpo ikasi behar izan dutenez, esfortzu nahiko handia egin behar izan dute euskara ikasteko:

“Lehenengo hiru urteetan bi orduko klasea ematen nuen egunero eta gainera egunero joaten ginen. Batzuetan gogorra zen, orduan oso goiz hasten nintzen lanean eta. Baina pena merezi zuela pentsatzen nuen. Garai hartan zinegotzia nintzen eta pentsatu nuen Udalaren zerbitzurako prest egon behar nuela, baina banekien nirekin ez zutela kontaktzen ia-ia ezertarako. Horregatik hartu nuen konpromiso gogorra euskararekin, horrela beti nengoen prest nire Udalari nire denbora eskaintzeko Udalak eskatzen bazuen”.

“Niretzat ere esfortzu ikaragarria izan da. Lanean nengoen, gero euskara klaseak hartzen nituen, eta gero etxera joan behar nuen: seme-alabak zaindu, senarrarekin egon... Ez nuen denerako denborarik, baina uste nuen euskara ikasi behar nuela eta ez nuen utzi nahi izan”.

“Hasieran lanean ordu batzuetako liberazioa eman zidaten, baina gero hori kendu zuten eta nire kabuz hasi behar izan nuen. Gauetz ikasi behar izaten nuen eta oso gogorra egiten zen. Oso nekatuta nengoen ordurako. Baina pozik joaten nintzen”.

Ikasle gazteentzat euskara ikastea ez da inolako esfortzua izan edo eurek behintzat ez dute horrela bizi izan:

“Ez deusta ezelango esfortzurik suposatu. Ikastolan ikasi neban, baina konturatu barik. Jolasten ikasten genduan eta oso erreza zan. Gaur egun, gauza batzuk konplikatzen joan dira (aditzak eta holan), baina ikasi genduan garaian ez zan gatxa. Ez dekot euskera gogor ikasi behar izanaren akordurik”.

“Bai, egia da. Nahiko erreza izan da. Ikastolan eta danon artean ikasi dogu. Askoren egoera antzekoa zan (ikastolan hastean ez genkian euskeraz berbetan), eta batera egin dogun prozesua izanda ondo eroan dogu. Gainera, hizkuntza asko ikasi doguz aldi berean (euskera, ingelesa...) eta ohituta gagoz hizkuntzetara”.

Helduek euskara ikasteko esfortzu handia egin behar izan badute ere, denak gustura sentitu dira euskara ikasterako orduan:

“Beti oso gustura ikasi dut. Gainera, euskara ikastearen ildo beretik, gai ezberdinez ikasi dut eta esfortzu horrek aberastu nauela uste dut”.

“Ni ere beti pozik egon naiz. Aukera paregabea eman dit administrazioko beste pertsona batzuk ezagutzeko eta haien lanari buruz gauzak ikasteko”.

“Nik ondo pasatu dut. Orain arte beti hobby-a izan da. Orain perfila ateratzeko igual ez naiz hain ondo ibiliko, baina orain arte plazera balitz bezala hartu dut. Norbere erabakiz egiten diren gauzak beti egiten dira gustura”.

“Para mí, al principio era como empezar nuevamente con un reto y pensaba que lo iba a dejar pronto. Siempre había oído que era muy complicado. Y aunque recuerdas algo pensaba que me iba a resultar complicado. Si bien no me resulta fácil y te supone un esfuerzo porque tienes que combinar el trabajo con el estudio y tu vida personal y el tiempo de clases que tenemos, te das cuenta de que es algo que si se puede llegar a aprender (no del todo porque es muy complejo). Me he encontrado en el grupo bien y creo que el tiempo invertido ha dado sus frutos. Me siento a gusto y con ganas de seguir el año que viene”.

Ikasle gazteentzat hasieran euskara ikastea erraza bazen ere, denbora pasa ahala eta euskara bera gai zailago gisa ikusi ahala, ez dute euren burua hain gustura ikusi ikasten:

“Hasieran gustatzen jatan, baina orain gatxagoa egiten jat (aditzak oso gatxak dira, irakasleak oso zorrotzak gu epaitzerako orduan...) eta orain jadanik ez dot hain modu gustagarrian bizi”.

“Txikitan barregarria zan gauza errezak ikasten zenduzalako, baina orain euskara ikasgaia entzuten dogunean ez da ona hori entzutea”

“Eroso sentitu naz, baina aditzak asko zaildu dira”.

Ikasle helduei euskara ikasteak maila pertsonalean aportatu die, batez ere, maila profesionalean baino gehiago:

“Gure hizkuntzaz hitz egin eta irakurri ahal izatea. Hizkuntza guztietan gertatzen den bezala, euskara ikasteak eman dit euskal idazleek idatzitakoa irakurri ahal izatea eta euskal abeslariak abesten dutela entzutea eta ulertzea. Teorikoki gure hizkuntzaz bizi ahal izatea ere bai, baina horretarako beste baldintza batzuk bete behar dira eta hori ez da oso erreza”.

“Komunitate honetako biztanlea naizenez bi hizkuntzetan harremandu ahal izateko, eta lanean ere erabiltzea. Konferentziak ulertzeko eta hitz egiteko”.

“Niri profesionalki ez hainbeste, lanean inork ez dit eskatu euskara jakitea. Baina pertsonalki asko. Gainera, hori oso lotuta dago politikarekin. Euskaldunak gara eta etorkizunean diferentzia hori izango da”.

“Niri seme-alabekin euskaraz gauza batzuk hitz egin ahal izatea. Ezin ditugu elkarrizketa osoak euskaraz egin, edo ez daukagu horretarako ohiturarik, baina orain euskaraz dakidanez, nahi dudanean behintzat haiekin egin dezaket”.

“Sobre todo cumplir lo que yo consideraba una obligación conmigo mismo. Ser miembro de este país y sentir este país como lo sientes y no saber el idioma... es como para decir, fuera y cuando aprendas vuelves. Yo me sentía y me siento todavía mal en muchas situaciones. En otras épocas me he dedicado a trabajar en otros municipios y no había cosa que más rabia me diera que tener que decir a alguien que su idioma era el euskera que me hablara en castellano porque yo no sabía hablar euskera. Lo he llevado muy mal toda mi vida. Y ahora todavía no lo consigo porque no tengo ese nivel pero por lo menos estoy en el camino”.

Ikasle gazteek euskarak egin dien ekarpena maila akademikoan edo etorkizuneko maila profesionalean kokatzen dute:

“Euskera tituluak atarateko beharrezkoa da. Gainera, gaur egun lanerako, edozein lanpostutarako, euskera eskatzen deusue, eta ez badaukazu titulurik askoz gaxagoa izango da beharra topatzea”.

“Niri familian ez deusta ezer aportatzen, nire etxean inork ez dakielako, baina akademikoki asko titulu bat gehiago delako eta beste hizkuntza bat. Lan bat aurkitzerako orduan erraztasunak eman ahal dauz. Pertsona bezela ez, kalean jendeak ez dauelako hitz egiten”.

“Niri maila pertsonalean ez deust aportatzen, bueno bai, apur bat bai, baina batez be beste titulu bat da. Maila pertsonalerako ez dot erabiltzen ze nire lagunek ez dabe berba egiten eta nire etxean ez dakie. Orduan nik gaztelaniaz bakarrik berba egiten dot. Euskera ikastolan eta holan”.

Erakutsi den bezala, helduen eta gazteen arteko ezberdintasunak oso agerikoak dira arlo honetan. Helduen motibazioa euskara ikasten hasteko batez ere sentimentala eta ideologikoa da, hautu pertsonala azken batean. Kutsu politikoa ere hartzen zuen euren aburuz euskara ikasteak. Ikasteko zuten helburu nagusia hiztun komunitate baten parte sentitzea zen, edo beste kasu batzuetan seme-alabei transmititu ahal izatea edo senideren batekin komunikatu ahal izatea. Ondorioz, jarrera integratzailea dute euskararenganako. Gehienek helduaroan eta esfortzu handia eginez eta oztopoen gainetik egin dute euskara ikasteko ahalegina. Izan ere, horretarako euren lan- eta familia-bizitza uztartu behar izan dute euskara ikastearekin. Gazteek, aldiz, ez. Euren gurasoek erabaki zuten haien txikiak zirenean D ereduko ikastola batean sartzea, eta gurasoek hartutako erabaki horren ondorioz euskara txikitatik eta esfortzu handirik egin gabe ikasi dute, prozesu naturala izan da euren kasuan euskara ikastearena. Euskarari lotzen dioten helburu bakarrenetakoa laborala da. Jarrera instrumentala dute, beraz, euskararen aurrean.

Bestalde, helduak oro har gustura sentitu dira euskara ikasten eta ikasketa horrek ekarpen pertsonal handia egin die; profesionala, ez hainbeste. Gehienek lanean ez dute euskara behar izan. Gazteak, berriz, hasiera batean gustura sentitu ziren euskara ikasten, esan bezala ez zielako esfortzu handia egiterik eskatzen, baina ikasketa-prozesu hori zaildu ahala ez dira hain gustura sentitu edo ez dute hain borondate onez ikasten jarraitu. Gazteei batez ere maila akademikoan edo profesionalean eragin die euskara ikasteak.

3.2 ERABILERA

Atal honetan euskararen erabilera-esparruak eta testuinguruak aztertu nahi dira: ze egoeratan eta norekin hitz egiten duten ikasleek euskaraz, zergatik egiten duten horrela eta zelan sentitzen diren testuinguru horietan euskara erabiltzen dutenean.

Heldu gehienek lan-esparruan erabiltzen dute erabiltzen duten euskara apurra. Familian ere erabiltzen saiatzen dira, baina normalean ez dute jarraikortasunez egiten. Batzuek lanean ere ez dute erabiltzen, nahiz eta laneko jende gehienak euskaraz jakin:

“Lanean erabiltzea ez da arraroa. Egia esan, bilera formalak euskaraz eramatea ez da normala baina bai euskara hitz egitea edozein momentutan. Etxean ez da oso erreza erabiltzea era jarraian baina bai puntualki nire alabarekin”.

“Bakarrik etxean eta gutxi. Lanean askok dakite, baina ez dugu erabiltzen. Errazagoa da erdaraz, denek erabiltzen dute. Semeekin euskaraz hitz egiteko familiako edo lagunarteko egoeretan semeekin euskaraz eta besteei itzuli. Eromen handia zen. ETB eta egunkaria pixkat. Testuak euskaraz eta erdaraz badaude, erdaraz. Euskaraz irakurtzen badut hitzen bat beti hiztegian bilatu behar dut”.

“Telebista eta irratia euskaraz entzuten dut. Lanean ere erabiltzen dut, ahal dudanetan. Baina ahalegin handia suposatzen dit. Aurkezpenak eta prentsaurrekoak beti ele bietan egiten ditut, baina aurrez oso ondo prestatuta. Ez daukat segurtasun berbera”.

“Euskara klaseetan, prentsaurrekoren bat edo udalbatzarrean gairen bat defendatu behar badut erabiltzen dut, baina gutxi ze esfortzu bat suposatzen dit eta dena ondo eraman behar dudanez ez dut egiten. Senarrarekin mezuak euskaraz bidaltzen ditut, baina berba erdaraz beti”.

Guztiei gustatuko litzaieke euskara erabiltzen dutena baino gehiago eta esparru gehiagotan erabiltzea. Azken helburu batzuk badituzte ere, tarteko pausuak zeintzuk diren ere zehaztuta dute euren buruetan:

“Gustatuko litzaidake egunerokotasunean erabiltzea. Senarra euskalduna da baina harremana erderaz hasi zenez oso zaila da aldatzea. Seme-alabekin berdin gertatzen zait. Biek dakite euskeraz, baina ez daukagu hitz egiteko ohiturarik. Mezuak eta abar euskaraz bidaltzen ditut, baina harremana batez ere erdarazkoa da. Ez naiz inoiz helduko elebidun osoa izatera”.

“Euskara nire bizitza osoan erabiltzea gustatuko litzaidake. Baina tarteko pausu bezala udalean erabiltzea gustatuko litzaidake, lankideen artean askok badakite, baina ez dakit zergatik ez dugun egiten. Batzuetan egiten dugu baina gutxitan. Ohitura kontuak dira nire ustez, ez diot beste arrazoirik topatzen. Hala ere, nire bizitzan ohitura batzuk aldatzea lortu dut”.

Gazteek euskara eremu akademikoan erabiltzen dute batez ere. Irakasleekin euskaraz egiten dute (hasieran behintzat, gero askotan erdarara pasatzen dira) eta ikastolarekin harreman duena euskararekin lotzen dute. Hortik kanpo ez dute euskara apenas erabiltzen, senide euskaldunak dituztenek izan ezik:

“Ikastolan euskeraz egiten dogu, baina klase barruan bakarrik, irakasleakaz. Txikitan gure artean gela barruan euskeraz egiten genduan, baina gaur egun ez”.

“Lagunen artean ez dogu euskeraz berba egiten eta eguneroko bizitzan be ez. Erderaz bizi gara, ikastolatik kanpo behintzat”.

“Euskeraz dakien familiako pertsonakaz bai, baina bestela kalean ez dot euskera erabiltzen”.

Euskara gehiago erabiltzea gustatuko litzaieke, baina ez dute uste hori horrela izango denik:

“Niri bai, niri gustauko litxakit lagun artean gehiago egitea, baina badakit ezetz. Inoz saiakera egin dogu euskeraz berba egiteko baina azkenean beti pasetan gara erderara”.

Euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko arrazoi artean, helduena gaitasuna da motiboa. Euskarazko gaitasuna mugatua da, edo ez gaztelaniaz duten gaitasunaren antzekoa, eta, hori dela eta, ez dute segurtasunik lagun artean, lanean edo jendaurrean erabiltzerako orduan:

“Lanean erabiltzen saiatzen naiz, ahal dudana guztietan: prentsaurrekoetan, elkarrizketetan. Baina esan nahi dudana prestatuta eraman behar dut; ez badut prestatuta eramaten, oso urduri jartzen naiz ez dudalako egoera kontrolatzen. Adibidez, kazetariak galderak egiten dituztenean. Akats bat egin dudala konturatzen banaiz, hortik aurrera ja blokeatuta nago eta ez dakit beste ezer esaten. Oso urduri jartzen naiz”.

“Kostatzen zaigu gauza batzuk erdaraz adieraztea, eta horregatik gehienetan erdarara jotzen dugu”.

“Ondo hitz egiteko ez daukat mailarik, orduan nahiago dut erdaraz hitz egin. Gauzak ondo egitea gustatzen zait”.

“Lanaren gauzak tinko egin behar dituzu eta nik ez daukat hiztegirik. Ni bizi izan naiz Elhuyar hiztegiarekin. Hiztegia oso murriztua dut”.

Ohitura falta ere nabarmentzen dute:

“Harremanak beste hizkuntza batean sortuta daudenean oso zaila da beste hizkuntzetara pasatzea. Nik uste nuen ohitura horiek aldatu ahal zirela, baina gero errealitatean ez da horrela gertatzen”.

Ohitura eta gaitasuna lotzen dituzte:

“Ez daukat hitz egiteko ohiturarik eta zaila da topatzea norbait hitz egiteko. Orduan, gero eta gutxiago hitz egiten dut. Eta, zer gertatzen zait? Zenbat eta gutxiago hitz egin, orduan eta gehiago kostatzen zaidala hitz egitea. Azken urteetan asko galdu dut. Lehen hobeto nekien”.

Azkenik, Bilboren testuinguru soziolinguistikoa ere aipatzen dute. Bilboko datuak ematerako orduan esan dugun bezala, Bilboko euskaldun kopuruak gora egin badu ere, oraindik euskaldun kopurua erdaldunena baino askoz ere txikiagoa da, eta egoera hori jasotzen dute ikerketan parte hartu duenek ere:

“Gainera, gure inguruan gertatzen denak ez du laguntzen. Bilbon bizi gara eta Bilbon oso jende gutxi hitz egiten du euskaraz. Errazagoa da lortzea egunkari bat ingelesez euskaraz baino. Oso giro erdaldunaz inguratuta bizi gara eta horrela, nahiz eta nahi, ezin da”.

“Komertzioetan, adibidez, oso zaila da erabiltzea. Ogia erostera zoaz, baina okinak ez dizu ulertzen eta gaztelaniara pasatu behar duzu. Eguneroko bizitzarako ezin da erraz erabili”.

“Nire inguruan oso jende gutxi daki euskaraz eta ez da erraza niretzat euskaraz norekin egin topatzea. Gainera, taldean zaudenean beti dago norbait ez dakiena eta horrekiko errespetuagatik erdarara pasatu behar dugu. Lagun bat eduki behar duzu. Lagunen artean akatsa egiten baduzu berdin du”.

Gazteen arrazoiak oso bestelakoak dira. Alde batetik, euskara hezkuntzarekin, eta beraz eremu formalarekin, lotzeak euskarari buruzko aurreiritzi negatiboak sortzen dizkie ikasleei. Gainera, gazteek euskaraz hizkera propiorik edo gazte-hizkerarik ez dutela diote. Euren ustez ez dute baliabiderik euren artean modu naturalean hitz egiteko. Hori guztia dela eta, ez dute lagunartean erabiltzen:

“Euskera ikasgaia oso aspergarria eta gatxa da. Niri ez jat euskera gustatzen, apur bat be ez”.

“Euskera ikastolako hizkuntza da, ez lagunartean erabiltekoa, gainera gauza asko (esamoldeak eta holan) ez dakiguz euskeraz esaten, eta, horregaitik, erderara jotzen dogu”.

Euskarari buruzko beste uste hauek ere eragina dute, euren ustez, euskararen erabileran:

“Gaztelania indar gehiago daukan hizkuntza da. Leku guztietan entzuten dozu eta gauza guztiak gaztelaniaz dagoz. Gauza guapoak ez dagoz euskeraz. Euskeraz dagozan gauza gehienak kristoren rolloa dira, umeentzako gehienak. Guretzako ez dago gauza dibertigarrik euskeraz”.

Horrez gain, ohiturarik ez dutela argudiatzen dute:

“Geure artean ez dogu inoz egin, eta ez gara orain egiten hasiko. Hori oso arraroa litzake”.

Gazteen artean taldearen eragina ere aipatzen dute, hau da, taldeak egiten duena egiten dutela guztiek:

“Kontagiaz egiten dogu erderaz. Jende guztiak erderaz egiten dau, eta orduan geuk be bai. Jendeak euskeraz egingo baleu, neuk be egingo neuke. Adibidez, Lekeition biziko banintz seguru nago lagunartean euskeraz egingo gendula, baina Bilbon ez dau inork egiten eta arraroa izango zan zuk euskeraz egitea, inork ez badau egiten. Gure adinekoen artean frikia da euskeraz berba egitea, eta inork ez dau frikia izan gura. Neuk behintzat ez”.

Halaber, helduek deseroso sentitzen dute euren burua euskaraz, gaitasun eza eta konfiantza eza dela eta, testuinguru formaletan, lanarekin erlazionatutakoetan (idazki laburrak, prentsaurrekoak, interbentzio puntualak eta aurrez prestatuak eta abar), eta eroso lagunartean edo hanka sartzeko beldurrik ez daukaten testuinguruetan, adibidez, koadrilan edo euskara-klaseetan:

“Niri gauza bera gertatzen zait. Elkarrizketetan oso deseroso sentitzen naiz. Ez dakit zer galdetuko didaten eta ez nago seguru ondo erantzuteko kapaz izango naizen. Batzuetan pentsatzen dut zuriz geratuko naizela eta leloa naizela pentsatuko dutela elkarrizketa egiten ari den kazetariak”.

“Lagunartean momenturen batean elkarrizketaren bat euskaraz suertatzen bada, parte hartzen saiatzen naiz. Hori da nire aukera euskaraz hitz egiteko eta ez dut galduko. Txarto egiten badut, ez da ezer gertatzen. Inork ez dit ezer esango eta inork ez nau zuzenduko. Lasai nago”.

“Euskara klaseetan, adibidez, oso lasai nago. Burura etortzen zaidan lehenengo gauza esan, eta kitto. Zuk ez diguzu inoiz ezer txarrik esango edo bronka botako. Asko jota zuzendu. Eta hori ez da txarra. Ikasteko delako bakarrik, ez gu epaitzeko. Orduan ez dago inolako presiorik”.

Gazteek ez dute euren burua eroso ikusten inolako testuingurutan:

“Hitz egin behar badot, hitz egiten dot, baina bestela ez. Ez dogu erabiltzen, errazagoa delako erdaraz egitea. Kostatzen jatanez ez naz oso eroso sentitzen euskaraz berba egiten”.

“Niretzat ez da naturala euskeraz berba egitea, niri pentsatu barik etortzen jatana erdera da, eta horregaitik egiten dot erderaz. Erosoago nagoelako eta nire ama-hizkuntza hori dalako”.

Aurretik aipatu bezala, euskararen erabilera ezagutzaren azpitikoa da. Gazteek helduek baino gaitasun handiagoa dute, baina gaitasun hori ez da erabileran islatzen.

Euskara zein testuingurutan erabiltzen duten aztertuta, ikasle helduek batez ere lanean erabiltzen dute. Hala ere, lanean erabiltzeko ahalegin handia egin behar dute, ez dutelako erraztasunik. Laneko giroak ez duela euskararako joerarik adierazten dute, eta horrek ere ez die bidea errazten. Familian gutxi batzuek erabiltzen dute, baina modu isolatuan edo momentu puntualetan. Familia-harremanak, oro har, erdaraz dituzte eraikita eta ohitura hori aldatzeari zaila deritzote. Gainera, gehienek familian ere ez dute euskaraz hitz egingo duten kiderik.

Gazteen baldintzek euskararako joera erraztu beharko luketela ematen badu ere (inguruan askoz ere euskaldun kopuru handiagoa daukate), errealitatea guztiz kontrakoa da. Lagunartean, adibidez, ez dute inoiz egiten, nahiz eta guztiek jakin. Familiako kide gehienek ez dakite (kasu honetan helduen egoera berean daude), eta, ondorioz familiartean ere ez dute erabiltzen. Euskara erabiltzen duten esparru bakarra, beraz, ikastola da, eta ikastolaren barruan irakasleekin bakarrik, eta ez beti.

Euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko oso arrazoi desberdinak dituzte batzuek eta besteek, baina oro har marko teorikoan aipatutako arrazoiak dira behin eta berriro aipatu direnak: gaitasuna, motibazioa, baldintza demolinguistikoak, harreman-sareak, hizkuntzaren ageriko onarpena eta hizkuntzaren erakargarritasuna eta ospea.

Helduek euren gaitasun falta ikusten dute arrazoi nagusi gisa: ez dutenez euskara-maila alturik ez dute euren burua gai ikusten testuinguru batzuetan erabiltzeko. Ohitura falta ere badute eta, horrekin lotuta, euren ustez Bilboko egoera soziolinguistikoak ez du asko laguntzen erabilera bultzatzeko. Euren inguruko jende gehiena erdalduna da, eta ez dute aukerarik, nahita ere, euskara euren eguneroko bizitzetan txertatzeko.

Gazteek, aldiz, euskara-gaitasuna altuagoa badute ere, ez dute erabilerarako pausua ematen. Euskara hezkuntza-eremuarekin lotzen dute, erabilera formalarekin, eta horregatik lagunarterako ez darabilte. Bistakoa denez, euskarari buruzko aurreiritzi zehatzak dituzten, ez dutenak erabilera sustatzen. Haien ustez, euskara eremu formaletan erabiltzekoa izateaz gain, hizkuntza “aspergarria” da, baita euskaraz dagoen ia guztia ere: telebista, filmak, jolasak eta abar. Euren aburuz, gaztelaniak askoz indar handiagoa du eta gauza dibertigarri guztiak gaztelaniaz egiten dira.

Hitz egiterako orduan ere ez dute erraztasunik, alde batetik euren artean hitz egiteko ohiturarik ez daukatelako, eta, beste alde batetik, ez daukatelako gazte-hizkera propiorik. Esamoldeak eta jerga gaztelaniaz baino ez daukate, eta gazteentzat hori da erakargarria eta erabilerara bultzatzen duena. Euskara hizkuntza “neutro” gisa ikusten dute.

Ikasleen arabera, taldeak erdaraz egitea erabakitzen badu, erdaraz egingo da. Norbanako bakarrak ezin du taldea aldatu. Taldeak aldatzen du norbanakoa. Taldeak euskaraz egitea erabakitzean dago, beraz, hizkuntza erabileraren gakoa.

Helduak eroso sentitzen dira testuinguru informaletan euskaraz hitz egiten (lagunartean, euskara klaseetan), baina deseroso testuinguru formalagoetan. Izan ere, testuinguru formaletan segurtasun eza daukate eta zailtasunak dituzte, akatsak egiteko beldurra dela eta.

Gazteak oro har deseroso sentitzen dira euskaraz, baina ez da gaitasun kontua, baizik eta eurentzat ez dela naturala euskaraz hitz egitea, eta erdaraz erosoago sentitzen direla. Hori dela eta, erdarara jotzen dute.

3.3 ZAILTASUNAK ETA FRUSTRAZIOAK

Atal honetan euskara ikasteen zailena zer egin zaien aztertuko da, ze oztopo izan duten ikasterako orduan, momenturen batean etsitzeko gogoia izan duten eta horrela izan bada etsipen horri aurre egiteko mekanismoak zeintzuk izan diren.

Euskara ikasteko zailtasunez hitz egin dutenean, helduek bi motatako zailtasunak aipatu dituzte. Alde batetik, euskarari berari dagozkion zailtasunak aipatu dituzte ikasle batzuek:

“Idazlanak egitea asko kostatu zait, batez ere azterketetan. Idazten duzu hitz egiten duzun moduan. Ahoz hobeto moldatzen naiz eta idazlanetan blokeatu egiten naiz, eta ezin dut”.

“Baldintza eta subjuntiboa asko kostatzen zait. Beti indikatiboan eta orain aldian hitz egiten dugu. Besteak ekiditen ditugu. Urtean zehar lau liburu irakurtzen ditut euskaraz, horretara behartzen dut neure burua, eta hala ere baldintza eta subjuntiboa erabiltzeko ez naiz kapaza”.

“Niretzat zailena idaztea da, eta ez bakarrik euskaraz. Gaztetan asko gustatu zait idaztea eta asko idazten nuen, poesiak eta horrela, baina gaur egun oso gutxi idazten dut. Gainera ez dut hiztegiarik. Hitz egitea ere batzuetan zaila da, baina idaztea baino errazagoa egiten zait”.

“En mi caso, el vocabulario se me hace difícilísimo, retenerlo. Porque son muy diferentes al castellano. Las estructuras también. Diferenciar ambos idiomas. Los plurales de los verbos, si es nor-nori nor-nori-nork...”.

“En el vocabulario le quito un poco de importancia. Eso es memorizarlo y meter horas. Pero la mayor dificultad es que las tres o cuatro últimas letras de cada palabra cambian por todo. Te puedes saber muchas raíces pero esa raíz da lugar a otro montón de variables. Solo se consigue con mucho esfuerzo”.

“Buruan bi zinta dauzkat (erdera eta beste bat), bizitzako momentuaren arabera freskoen daukadan bigarren hizkuntza daukat bigarren zinta bezala. Besterik ez zait sartzen. Ez daukat hiru zinta”.

Baina beste batzuek beste mota bateko zailtasunei ematen diete garrantzi handiagoa, euskararen inguruko usteei eta aurreiritziei lotutakoei, alegia. Nola sentitzen diren euskaraz hitz egiten dutenean edo hitz egiten saiatzen direnean eta ze zailtasun psikologiko suertatzen zaizkien orduan:

“Zailtasuna norberaren barruan dago. Batzuentzat baldintzek dute zailtasunik handiena baina nik uste dut zaila dela nagusiek ikasteko. Nik hasieran ikasi nuenean gustura hartzen nituen klaseak, baina azken urteetan diferentziarekin klaseko nagusia izan naiz eta horrek baldintzatu nau. Dena den, nire iritzian zailtasunik handiena gure egoera soziolinguistikoan datza”.

“Daukadan zailtasun handiena da jende askorekin topatzen naizela eta kristoren euskara egiten dute, perfektua, eta amamagaz berba egiten saiatzen naizenez, nire euskara da etxeko euskara, ez da euskara profesionala, eta niretzako hori guztiz zaila

da. Hain landuta ez dakit egiten. Ez daukat arazorik hitz egiteko eta hanka sartzeko, baina ez dakit haiek bezala egiten, eta, gainera, uste dut ez dudala inoiz horrela hitz egiteko mailarik lortuko”.

Ikasle gazteek euskararen gramatikan eta esamoldeetan ikusten dituzte zailtasunik handienak:

“Gramatika aldetik oso gatxa da eta esamoldeak be bai. Aditz lagunetan zailtasunak daukadaz”.

“Niretzako lexikoa, ez daukalako beste hizkuntzakaz antzik. Gaztelaniazkoa etortzen jatzu burura eta gatxa da itzultzea”.

“Hitz egiteko zailtasunak daukadaz lehenengo erderaz pentsatzen dodalako. Irakasleakaz euskaraz hasi eta erdarara pasatzen naz”.

Ikasle helduek, oro har, ez dute euskara ikasteko bidean etsitzeko asmorik izan. Nahiz eta momentu batzuetan burutik pasa, guztiek aurrera egin dute hartuta zuten konpromisoa zela eta:

“Etsitzeko gogorik ez, baina batzuetan pentsatu nuen hobe zela atsedenaldi bat izatea, eta gaztelaniaz irakurtzeari ekitea aspertu arte”.

“Nik inoiz ez. Frustrazioak bai izan ditut, azterketak egiterako orduan batez ere. Azterketak prestatzen nituen, baina ez nituen gainditzen. Burugogor jarri nintzen esanez, lortu behar dut, eta horrela egin nuen. Gaingitu nuenean zortzi hile eman nituen ezer egin gabe. Behar nuen. Haizea hartu behar nuen eta gero bueltatuko nintzen. Gero bueltatu nintzen, baina ordurako ez neukanez azterketaren presiorik lasaiago hartzen nituen klaseak eta horrek jada ez ninduen agobiatzen. Ordutik aurrera poz-pozik nago ikasten”.

“Niri asko gustatzen zait euskara eta gustatuko litzaidake gehiago jakitea eta momenturen batean ikasteari uztea. Hirugarren perfila aterako banu klaseak utziko nituzke, baina euskararekiko harremanak ez. Baina Bilbon zaila da euskararekiko lotura hori mantentzea”.

“Yo ganas de tirar la toalla no. De tirarla no, pero de estrujarla...je je je. Cuando hacemos parones, cuesta ponerse otra vez. Cuando se pone más difícil te supone un sobreesfuerzo. Le di la vuelta diciendo hay sigo, no lo puedo dejar, y por respeto al grupo”.

“Vas sumando conocimiento y ahora tenemos tal exigencia que te cuesta mucho. Aprendes algo y se te olvida lo anterior. Y yo no puedo sacar más horas para meter. Entonces a veces empiezas a pensar: lo dejo. Pero luego te lo piensas mejor y dices: no, no lo puedo dejar”.

“Ez, inoiz ere ez. Nik beti izan dut argi zer egin nahi nuen eta aurrera egingo nuela horrekin, kosta ahala kosta. Baina nire inguruan holako kasuak izan ditut. Euskara ikasten hasi eta handik gutxira utzi. Beste batzuek gainditu dute, arrazoi berberarengatik: euskaldunak oso burugorrrak gara eta buruan zerbait sartzen zaigunean...”.

Ikasle gazteek ez dute ikasketa-prozesua eteteko intentziorik inoiz izan, ez dagoelako haien esku. Hezkuntza arautuaren barruan dago euskara ikasgaia eta euskara bera, eta horrekin elkarbizitzen dira. Euskara berez ikasi dute, inolako esfortzurik gabe eta honezkero lortua duten gaitasuna da euskararena, nahiz eta gabezia handiak izan. Hala ere, batek baino gehiagok aipatu du gustatuko litzaiokeela euskara ikasgaia desagertzea, eta baita A ereduko kolegio batera joatea ere:

“Nigaitik ojala kenduko bazan. Holan ez genduzan aditz arraro horrek ikasi beharko. Nik paso holango gauzak ikasteaz. Ez jataz gustatzen eta gainera ez deustie ezertarako balio”.

“Nik be bardin. Nigaitik, askotan esan deusat amari, kolegio batera joango nintzan. Nire kuadrilako batzuk badoaz, eta han askoz errezagoa da dana. Eta euskera bakarrik da ikasgai bat. Eta oso erreza, gainera. Han ez dabe ikasten ahalera eta holan. Han hamarrak atarako nebazan fijo”.

Ondorioz, ikasle helduek bi motatako zailtasunak ikusten dizkiote euskara ikasteari. Bata gramatikari dagokiona, hau da, idazmena, aditz mota konplikatuak, hiztegia edo euskararen egitura bera. Eta bestea, psikologikoa: euskara ikasteen sortzen zaien sentsazioa edo erabiltzerako orduan duten gutxiagotasun-konplexua.

Ikasle gazteek zailtasun gramatikalak baino ez dizkiote ikusten euskara ikasteari, batez ere, aditzak eta esamoldeak. Euren zailtasunik handiena da erdaraz pentsatzen dutela eta euskara erabiltzen dutenean itzulpen-lan hori egin behar dutela.

Helduek zailtasunak eta frustrazioak izan badituzte ere, ez dute etsitzeko asmorik ia inoiz izan, eta izan dutenean ere aurrera egitea erabaki dute, euren buruarekin eta taldearekin hartuta zuten konpromisoagatik.

Gazteek, ostera, euskara berez ikasi zuten ez zuten etsitzeko beharrik inoiz sentitu. Ikastolan egotea normaltzat hartzen dute, eta ikastolan egotearen parte da euskara bera. Baina euskara ez dutenez gogoko, euskara ikasgaia egin behar ez izateko nahia adierazi dute, baita ikastola utzi eta D eredukoa ez den ikastetxe batera joatekoa ere. Horrela, euskara errazagoa izango zen, eta, beste ikasgai guztiak gaztelaniaz izango zirenez, haientzat eramangarriagoa izango zen.

3.4 KONTZIENZIA MAILA

Atal honetan, euskaraz jakitea edo ikastea beharrezko edo komenigarri ikusten duten aztertuko dugu, ea gizartean euskara bultzatzeko nahikoa egiten dela ikusten duten, euren ustez zer egin beharko litzatekeen euskara bultzatzeko eta eurak zer egiteko prest dauden horretarako.

Ikasle helduen ustez, Euskal Herrian bizirik, euskaraz jakitea ezinbestekoa da, baina sentimendu aldetik bakarrik. Lan-mundu arlo batzuetarako, adibidez, ez dute beharrezkoa denik ikusten:

“Herrien kontzientzia edo pertsonalitatea mantentzeko ezaugarri batzuk behar dira, eta horietako bat hizkuntza dela uste dut”.

“Bi hizkuntza ditugu eta biak jakin behar ditugu hemen bizitzeko. Hori sentimendu aldetik. Administrazioan ere beharrezkoa da, baina jende arruntarentzat ez da beharrezkoa. Bakarrik funtzionarioentzat, irakasleentzat, politikarientzat. Ogibide batzuetan bakarrik behar da. Hezkuntzan euskara sartuta baldin badago, batxilerra bukatzean maila nahiko ona da bietan nahiko ondo moldatzeko. Hor dago lehenengo pausua, gero erabilerara. Baina beste hizkuntzak jakitea ere beharrezkoa da”.

“Necesario como una obligación laboral no, moral sí. Por vivir y trabajar aquí y ser de aquí. En lo laboral veo que las nuevas generaciones usan mucho el euskera y a veces hablan en castellano por mantenerte a ti y no apartarte. Se oye muchísimo más en los últimos años con la incorporación de la gente joven. El ciudadano también lo pide más”.

Hala ere, aitortzen dute Bilbon bizi den edonor euskara jakin barik ere inolako arazorik gabe bizi daitekeela:

“Primeran bizi daiteke Bilbon euskara jakin gabe. Edonora joanda edozein pertsonak daki erdaraz. Herri txikietan agian euskara behar duzu, integratzeko eta horrela, baina hemen ez. Hemen aldrebes da. Jende gehiena erdaraz bizi da, eta arraroak gara euskaraz bizi nahi dugunok”.

Egon da euskararen beharrezkotasuna edo beharrezkoa ez izatea hizkuntzaren biziraupenarekin lotu duenik:

“Ez dakit zein den hizkuntza txikien etorkizuna. Herri handietan ez da beharrezkoa jakitea eta hitz egitea. Txikietan bai, eta horregatik bertara joaten den jendeak ikasten du. Hemen ez dago presiorik. Niretzat oso tristea izango zen galtzea. Eskozian, adibidez, inork ez du hitz egiten, Irlandan berdin. Eta Irlanda independentea da eta ingelesez hitz egiten dute, batez ere gazteek. Gero eta gehiago ingelesa sartzen dugu eta euskarak galtzen du. Euskara mantentzea zaila izango da”.

Edonola ere, errespetuaren gaia aipatzen dute gehienek: jakitea komenigarria dela eta sentimendu aldetik beharrezkoa, baina ez dakitenek ere ez jakiteko eta gaztelania erabiltzeko eskubidea dutela.

“Niretzat beharrezkoa izan da, nik horrela esan diodalako neure buruari, baina ezin dugu inor derrigortu horretara. Bakoitza askea da nahi duena egiteko eta erabakitzeko, eta hori pertsona bakoitzaren esku geratu behar da. Ezin da inposaketa bat izan. Hori ez litzaidake ondo irudituko”.

“Zoritxarrez ondino ez da beharrezkoa, lortu behar dugu beharrezkoa izatea baina ez da. Ikasi edo egin nahi ez duenak aukera eduki behar du erdaraz egiteko, baina ondino lan piloa egin behar da, baina ez dakit nola lortu ahal den. Esfortzu handia egin da. Asko entzuten da kaleetan guraso gehienek badakitelako euskaraz, baina oraindik asko egin behar da”.

Gazteek ere ikastea komeni dela uste dute:

“Euskara jakitea eta erabiltea inportantea da. Ya, baina guk ez dogu erabilten. Eta, klaro, guk ez badogu beharrezko egiten galdu egingo da. Guztiok hitz egingo bagendu hobeto egongo zan”.

Arrazoi laboralak aipatzen dituzte gai honetan ere:

“Euskal Herrian bizi bazara beharrezkoa da, lan egiteko behar dozulako”.

Bestalde, nortasunaren faktorea ere nabarmentzen dute:

“Komenigarria da euskara jakitea zure kultura delako. Euskara da euskaldunak egiten gaituena. Eta, gainera, guk aukera ezin hobea daukagu hizkuntza ikasteko eta horrela komunikatzeko”.

“Hemengo hizkuntza da eta jakin behar da. Bestela ez zara hemengoa. Horren desbardintzen gaitu besteakaz”.

“Hizkuntza ez badau inork erabiltzen galdu egingo da, gure gizartean gauza nabarmena da, hizkuntza berezia da ez dakitelako nondik atera dan, eta orain dala urte asko hitz egiten zan”.

Hala ere, gazteek ere uste dute ezin dela inor derrigortu:

“Beharrezkoa izan beharko litzateke, baina zu ez zara inor hori esateko. Gurasoek ez dakitenez euskara seme-alabek etxean entzuten duzuna hitz egingo duzu kalean ere”.

Heldu gehienek uste dute bai gizartean eta bai erakundeetatik nahikoa egiten dela euskararen alde:

“En principio creo que sí. Lo que ocurre a veces es que lo que sale en la prensa es la gente que se opone a lo que hay o a lo que ya se hace desde las instituciones. Pero yo no creo que la realidad sea así. Ves el mundo escolar, las matriculaciones, las líneas A están desapareciendo... Quizá el uso coloquial es lo que falta y lo que hay que impulsar. Pero si que oigo mucha más gente hablando por la calle. Eso sí, en el comercio y demás todavía no se ha implantado y está un poco flojo. Por lo demás creo que se ha avanzado mucho”.

“Beti gehiago egin ahal da. Uste dut erakundeen aldetik egin dela eta egiten ari dela, baina herri baten arazoa dela uste dut. Denok jakin behar dugu, baina ez gara denon artean elkartu eta hau aurrera atera”.

“Ni erakundeetako parte naiz eta orduan zaila da modu objektibo batean hitz egitea, baina uste dut baietz. Uste dut asko egin dela azken urteetan eta ahalegin berezia egin dela erakundeetatik euskara bultzatzeko. Esfortzu eta diru asko inbertitu da horretan, nahiz eta jende bat horren kontra egon. Oraindik gehiago egin beharko da, eta etorkizunean seguru nago egingo dela, baina ezin da esan ez dela ahalegin hori egin, ez litzatekeelako egia izango”.

Hala ere, kontrako iritzirik ere egon da:

“Ez dut uste. Agian oraingo *status quo* mantentzeko gauzak horrela egin behar dira baina nik uste dut horrela jarraitzen badugu euskararen egoeran ez duela hobekuntza handirik ezagutuko”.

Gazteek erakundeak, gizarte-eragileak, gizartea eta bestelakoak oso ondo ezberdintzen ez badituzte ere, sentsazioa dute orokorrean asko egiten dela euskara bultzatzeko:

“Asko egiten da erakundeetatik, joko asko daude euskaraz eta konbentzio asko gazteek erabiltzeko”.

“Euskaltegi asko dagoz umeez eta helduek ikasteko eta gazteentzako talde asko eta bertan euskaraz mintzatzen da”.

“Gauza asko prestatzen dira euskara bultzatzeko (adibidez, ibilaldia eta horrelakoak), baina arazoa gurea da, ez deusagulako kasurik egiten horri. Baina egin egiten dira, nik asko ikusten dodaz”

Euskararen egoera hobetzeko zer egin beharko litzatekeen berbetan egon direnean, helduen artean denetariko iritziak egon dira. Batzuek euskararen trebakuntzan ipintzen dute fokua.

“Ez da erreza eta nik ez dut makila magikoa besteek egiten ez dutena egin ahal izateko. Nire ustez oso zaila da gauzak hobetzea, baina nik uste dut nagusien trebakuntzan gehiago egin beharko genukeela. Agian hori esaten dut nik neure burua hor ikusten dudalako, ez dakit”.

Besteek belaunaldi kontua dela uste dute euskararen erabilerari buelta emateko gakorik garrantzitsuenak:

“Nos queda pasar la generación nuestra. La siguiente a la nuestra, la tuya y así, ya casi todo el mundo lo habla o lo conoce. Hay que animar a la gente a hablar. También está el tema del respeto a los demás. En los grupos siempre hay gente que no lo conozca. Y por eso no se usa. Animar a la gente a pequeñas conversaciones que la gente que no sabe también las puedan entender”.

Beste batzuen ustez, euskararen gaitasunak gora egin ahala egoera asko hobetuko da. Izan ere, horrela, euskararen eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza errazagoa izango da, eta bien arteko nahasketa posible.

“Yo estudié en Barcelona. Ahí había el uso combinado del uso del catalán y el castellano. Y no pasaba nada. Aquí somos tan respetuosos que hemos hecho dos

mundos estancos. Y cada mundo solo es para no sé qué. Y hay que hacer que se mezcle mucho más. Y eso tendría que pasar aquí también”.

Gazteek transmisioari ematen diote garrantzia, batez ere.

“Gurasoek seme-alabei transmititza da garrantzitsua. Etxean egiten badabe seme-alabek be egingo dabe. Guk ez dogu egiten ze gure gurasoek ez dakie, eta guk etxean ez gendun entzuten. Orduan ez daukagu ohitura hori. Baina ohitura hori eduki izan bagendu, igual gaur egun berba egingo genduan. Edo igual ez e? Baina nik uste dot baietz”.

Hezkuntza-komunitatearen gain ere ardura jartzen dute ikasle gazteek:

“Ikastolek zerbait egin beharko leukie euskara ikasgai bat baino gehiago izateko, ez bakarrik ikastea eta ikastea”.

Gainera, gazte giro euskaldunak edo gazte koadrila euskaldunak sortzea eta bultzatzea gakoa izan daitekeela uste dute:

“Eta lagunek egiten badabe, zuk be egiten dozu. Gazteen artean normala da besteek egiten dabena zuk egitea. Gehiago hitz egin beharko litzateke lagunaren artean eta familien artean, baina besteek ez dabenez egiten gatxa da. Giro euskaldunagoa egongo balitz eta modan egongo bazan, jendeak egingo leuke. Baina gatxena da giro euskaldun hori zelan sortu”.

Oro har, euskara erakargarri bihurtu behar dela deritzote:

“Jendeak ideiak eman ahal dauz euskara bultzatzeko eta ideia onenak aukeratuta, hori egin. Hori politikoez egin behar dabe. Adibidez, telesail gehiago euskaraz egoteak lagunduko leuke. Euskara erakargarria bihurtu behar da. Orain euskeraz dagoen guztia oso aspergarria da, eta jendea ez jako gustatzen. Esaten dan moduan, euskerak ez dau *molatzen*, eta horregaitik jendeak ez dau erabiltzen. Gauza guaiagoak egongo balira jendeak beste modu baten ikusiko eban euskera. Ez bakarrik ikasgai aspergarri baten moduan”.

Ondorioz, helduek sentimenduaren edo komunitate baten parte izatearen ondorioz euskara ikastea derrigorrezkoa dela uste dute, baina lanerako eta beste funtzio batzuetarako ez hainbeste. Adibidez, argi daukate Bilbon bizirik euskara ez dutela nahitaezko, hau da, primeran bizi daitekeela Bilbon euskara jakin gabe. Bestalde, euskararen derrigortasuna euskararen biziraupenarekin erlazionatzen dute.

Gazteek, ordea, kontrako ustea dute. Euren ustez ikastea komenigarria da, baina ikastearen arrazoi nagusienetako bat da lanerako beharrezkoa dela. Edonola era, nortasuna ere aipatzen dute euskara ikastea beharrezko ikusteko arrazoiaren artean.

Bai helduek eta bai gazteek euskara ikastea beharrezko edo komenigarri ikusten badute ere, biek aipatzen dute errespetuaren faktorea: ezin da inor derrigortu ez euskara ikastera, ez euskara hitz egitera. Eta, gainera, pertsona horiek kontuan izan behar dituzte euskal hiztunek hitz egiterako orduan.

Euskara bultzatzeko zer egin daitekeen esaten hasita, helduek euskararen trebakuntza aipatzen dute gehien bat. Euren iritziz, pertsonak (helduak batez ere) euskaldundu behar dira, eta horrela gizartearen euskara-maila hobetu. Horren ondorioz, gizartea askoz elebidunagoa izango da eta bi hizkuntzen arteko nahasketa eta elkarbizitza errazagoa.

Gazteek, berriz, transmisioan ikusten dute giltza, hizkuntza gurasoengandik seme-alabengana pasatzeari. Halaber, hezkuntzak berak euskalduntzearen aldeko urrats gehiago eman beharko lituzke euren aburuz. Azkenik, giro euskaldunak bultzatu behar direla uste dute, eta hori egiteko ezinbestekoa dela euskara erakargarri bihurtzea.

3.5 AURRERA BEGIRA

Atal honetan, aurrera begira ikasleek euren ikasketa-prozesua nola irudikatzen duten adieraziko da, ze euskara-maila lortzeko esperantza duten ikasleek eta etorkizunean ze leku uste duten (edo nola izatea gustatuko litzaieken) beteko duela euskara bakoitzaren bizitzetan.

Aurrera begira euren ikasketa-prozesuari modu baikorren begiratzen diete ikasle helduek; gehienek aurrera jarraitzeko asmoa eta gogoia erakusten dute:

“Ez dakit. Baina amets egitea beharrezkoa da. Orduan, jarraituko dut nire kuriositatea betetzen, batzuetan euskaraz, eta beste batzuetan beste hizkuntzez”.

“Nik hurrengo urtean jarraitzeko asmoa daukat, eta gainera denbora pixka bat gehiago euskaraz inbertitzeko. Bestela, oso astiro noa aurrera. Beraz, datorren urtean gogoia eta indar berriekin jarraituko dut”.

Dituzten zailtasunen eta traben kontziente dira, baina motibazioa (batez ere sentimenduzkoa) dute aurrera jarraitzeko. Pixkanaka ikasketa-prozesuan aurrera doazela jakiteak ere laguntzen die aurrera begira ikasten:

“Hace mucho mi aita, que nunca ha sabido una palabra de euskera, decía que de lo único que se arrepentía en la vida era de no haber aprendido euskera y no me puede pasar a mí. No me he puesto metas pero no quiero perder lo que he aprendido. Según lo que me permita el tiempo. Me produce cierta satisfacción leer alguna cosa y ver que lo entiendo. Te das cuenta de que aunque te cuesta mucho ahora vas cogiendo cosas y percibo mucho más”.

Ikusi den bezala, gehienek ez diote euren buruari helburu zehatzik finkatu.

“Qué incierto es el futuro. Yo no me he puesto objetivo. El primero es continuar el próximo curso. Y continuaré siempre que me lo permita mi situación laboral y personal sin que sea un sobreesfuerzo. En ese caso lo tendría que sopesar”.

Ezkortasun zantzuak ere badaude ikasle helduen artean:

“Saiatuko naiz bietan ondo hitz egiten, baina badakit ez dudala lortuko. Gustatuko litzaidake normaltasun osoz hitz egitea euskaraz, baina oso zaila dela iruditzen zait. Asko ikasi dut, batez ere ahozkoan eta ahoz gora irakurtzen, baina oraindik bide luzea daukat egiteko, eta ez dakit lortuko dudan”.

“Nire helburua 3. perfila ateratzea da. Lehen ikastearen helburua borondatea zen, ideologikoa zen. Erraza zen. Gero ya jendeak beste modu batean enfokatu du eta giroa aldatu zen. Beste hizkuntzen bezalakoa zen: behar duzulako, gustatzen zaizulako... Nik azken urteetan atzera egin dut nire prozesuan. Ez dakit, agian adinagatik izango da. Ez dakit zergatik den, baina lehen hobeto egiten nuen euskaraz. Orain txarrago egiten dut. Gramatika eta hiztegia behar dut gehiago hitz egiteko. Ausartzen naiz hitz egiten, baina eskertuko nuke lehen nuen maila berreskuratzea. Horrela bai ausartuko nintzatekeela askoz ere gehiago”.

Helduek ikasteko motibazioa eta asmoa agertu badute ere, ez dute argi ikusten etorkizunean euskarak ze leku edo ze paper jokatu duen euren bizitzetan:

“Ezer egiten ez badut, badakit euskarak ia ez duela lekurik izango nire bizitzan. Egunero egunkarian euskaraz idatzitako artikuluren bat irakurriko dut eta gutxi gehiago (edo telebista eta irratia). Baina hori gutxi da. Beraz, zerbait egin behar dut, koadrilaz aldatu... kar kar kar”.

“Ni saiatzen naiz, eta saiatuko naiz, euskarak nire eguneroko bizitzan leku gehiago har dezan, baina oso zaila da. Ohiturak sortuta daude harremanetan, eta hori aldatzea oso zaila da. Nire ingurua euskalduntzea gustatuko litzaidake. Pauso txikiak ematen ditut, baina askotan gauza puntualetan baino ez dira antzematen. Hala ere, ez dut etsiko. Nik beti bezain astuna izaten jarraituko dut, eta agian egunen batean egoera pixka bat aldatzea lortuko dut”.

Gazteek ez dute euren burua euskara ikastearen prozesu baten barruan kokatzen. Beraz, ez dute aurrera begira ikasten jarraitzeko asmorik agertzen. Euren ustez hizkuntza bereganatua dute, eta horrekin nahikoa da:

“Nik badakit euskeraz, eta orduan zertarako jarraituko dot ikasten? Horretarako nago ikastola baten. Euskera ikasteko. Eta holan ya betiko ikasita daukat. Holan ez naz euskaltegi batera joan behar ez ezer. Etorkizunean ez ahazteagaz nahikoa izango da nire ustez”.

Euskarak euren bizitzetan ze leku izango dute oso argi dute ikasle gazteek. Euskara funtzio zehatz batzuetarako erabiliko dute etorkizunean, baina lagunartean eta testuinguru informaletan ez dute erabiliko:

“Uste dot ez dodala euskara erabiliko inoiz edo ia inoiz, nahiz eta bihotzean eroan. Gustatuko litxakit noizbehinka erabiltzea, gauzak ez ahazteko, baina ez nago seguru holan izango danik”.

Gazteek aurretik aipatutako bi elementu atera dira honetan ere: euskara gurasoengandik seme-alabengana transmititzearen garrantzia eta euskara lanerako tresna izatea. Ildo horretatik, etorkizunean euskara bi funtzio horietarako erabiliko dutela uste dute ikasle gazteek:

“Seme-alabakaz erabiliko dodala uste dot. Edo neu behintzat ahaleginduko naz eurei hori transmitiduten. Beste alde batetik, lanean beharrezkoa izango danez erabiliko dodala uste dot. Hori lana Euskal Herrian topatzen badot, noski. Baina bueno, argi dagoana da lagunakaz ez dodala erabiliko. Gaur egun ez dogu erabiltzen, ba orduan nagusitan gitxiago”.

“Gustatuko litxakit lanean be erabiltzea. Baina agian kanpora joango naz beharrera, eta bertan ez dot euskararik behar izango. Orain arteko ohiturak ez dot uste aldatuko dodazanik. Adibidez, ez dot uste lagunakaz egingo dodanik. Halan be, nire seme-alabek lagunakaz erabiltzea gustatuko litxakit. Nik horretarako ahalegina egingo dot. Nik egin ez dodana eurek egin dagien”.

Laburbilduz, ikasle helduek euskara ikastearen prozesuan aurrera jarraitzeko asmoa eta gogoia erakutsi dute. Zailtasunak dituzte eta esfortzu handiz egiten dute aurrera, baina ez etsitzeko motibazio handia dute, batez ere sentimentala. Euren buruari ez diote helburu zehatzik ipintzen, pausuz pausu eta lasaitasunez egin nahi dutelako aurrera. Hala ere, alderdi batzuetan ezkor agertzen dira: adibidez, ez dute uste inoiz elebidun osoak izango direnik, edo horrelako egoera batera heltzea oso zail ikusten dute.

Ikasle gazteek, aldiz, ez dute euren burua ikasketa-prozesu baten barruan kokatzen, eta, ondorioz, ez dute uste etorkizunean euskara ikasten jarraituko dutenik edo horretarako beharrik izango dutenik. Ikasleek pentsatzen dute etorkizunean euskaraz ez dutela lagunartean edo testuinguru informaletan erabiliko, eta euskara lan-tresna gisa irudikatzen dute. Edonola ere, seme-alabei irakasteko asmoa agertu dute, eta baita seme-alabek euren artean eta lagunartean euskaraz hitz egiteko nahia ere.

4. ONDORIOAK

Datuen azterketa egin ostean, ondorioak ateratzeari ekingo diot. Ondorioak hiru ataletan banatuko ditut: euskara ikasteko arrazoiak, euskararen balioa eta euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko arrazoiak.

Euskara ikasteko arrazoiak oso ezberdinak dira ikerketako gazteen eta helduen artean. Izan ere, gazteek ez dute erabaki kontzienterik hartu euskara ikasteko. Kasu gehienetan gurasoek hartu dute seme-alabak D ereduko ikastola batera bidaltzeko erabakia, eta, erabaki horren ondorioz ikasleek euskara modu inkontziente, erraz eta naturalean ikasi dute. Txepetxan arabera motibazio intrinsekoa izan dute euskara ikasteko. Erabileraren bidez lortu dute euskararen ezagutza. Gainera, ikasle gazteetako batzuek (gutxiengo batek) euskara etxean ikasi zuen eta, beraz, prozesua guztiz naturala izan da.

Ikasle helduek, ordea, erabaki kontziente bat hartu zuten euskara ikasten hasteko. Erabaki hori hartzeko arrazoiak bat baino gehiago izan dira: alde batetik, euskararenganako sentimendua dago. Sentimendua esaten dugunean, gauza bati baino gehiagori egiten diogu erreferentzia. Sentimendua izan daiteke euskal identitatearenganako atxikimendua izatea, galdutako hizkuntza bat berreskuratu nahi izatearen sentimendua, sentimendu politikoa edo hizkuntza eta politikaren arteko lotura, edo izan daiteke euskara seme-alabei transmititzeko nahia.

Euskara ikasteko arrazoiak edo euskara ikasten jarraitu nahi izatea oso lotuta dago euskararen balioarekin., hau da, zertarako uste duten ikasleek balio duela euskarak edo balioko diela euskara jakiteak. Honetan ere oso ezberdina da ikasle gazteen eta ikasle helduen errealitatea.

Ikasle gazteek balio instrumentala atxikitzen diote euskarari. Izan ere, hizkuntza zehatz hori hitz egiteak onurak, gazte hauen kasuan ekonomikoak batez ere (lana lortzearekin erlazionatzen dutelako euskara), ekarriko dizkiela pentsatzen dute.

Ikasle helduek, ostera, balio integratzailea ematen diote euskarari eta horregatik ekin diote ikasteari. Hizkuntza horretako erkidegoaren parte izateari edo izan nahiari erantzuten dio balio integratzaileak. Hizkuntzen identitate-emaile izaeran ere adierazten da, baita atxikimendu-sentimenduarekin ere. Hizkuntza-erkidegoaren parte direnen eta izan nahi dutenen joera adierazten du. Eta hori da, hain zuzen ere, ikasle helduen kasua. Euskara ikasteko arrazoietan aipatu dugun bezala, euskal identitatea, galdutakoaren berreskurapena, politikarekiko lotura eta hizkuntza transmititu nahi zeuden arrazoi nagusien artean. Eta arrazoi horiek adierazten dute zein den ikasle helduek euskararekiko duten lotura: hizkuntza-komunitate baten parte izateko nahia.

Azkenik, euskaraz egiteko eta ez egiteko arrazoiak aztertuko ditugu. Ikerketa honetako gazteek euskara ez dute apenas erabiltzen. Euren erabilera-eremu ia bakarra (euskara etxean jaso zutenena izan ezik; horiek familia-esparruan ere erabiltzen dute) eskola-eremua da. Euskara ikasketetarako erabiltzen duten tresna da, baina eskola-eremuan ere ez dute beti erabiltzen. Ikasleen artean erdara darabilte eta irakasleekin euskaraz hizketan hasten badira ere, oro har, erdarara pasatzeko joera dute. Euren bizitzetako beste esparru guztietan erdara darabilte.

Horretarako arrazoiak bat baino gehiago dira. Alde batetik, ohitura falta dutela argudiatzen dute. Euren arteko harremana beti erdaraz izan da, eta horretara daude ohituta. Eurentzat arraroa izango litzateke euren betiko lagunekin euskaraz egitea.

Beste alde batetik, euskarari buruz dituzten uste batzuk ere oztopo dira euskara erabiltzeko. Adibidez, euskara aspergarria dela deritzote. Euskara ikasketekin lotzen dute, arlo akademikoarekin, eta, ondorioz, eurentzat desatsegina den ekintza batekin. Gainera, euskara modan ez dagoela diote gazteek. Gainerako gazteek ez dute euskara erabiltzen, eta, hori dela eta, eurek ere ez. Gainera, euskarazko gauza gehienak ez direla erakargarriak uste dute.

Horren guztiaren ondorioz, gazteek gaztelania euskara baino indar handiagoko hizkuntzatzat ikusten dute.

Aipatutako faktore guztiengatik gazteek erdara erabiltzea nahiago dute, nahiz eta euskara jakin eta euskararenganako nolabaiteko atxikimendua sentitu.

Ikerketa honetan parte hartu duten helduek euskara lan-eremuan darabilte batez ere. Ahal duten guztietan lanean euskara darabilte (dakiten lankideen artean, prentsaurrekoetan, elkarrizketetan eta abar), baina laneko giroa nahiko erdalduna dela aitortzen dute. Gero eta lankide euskaldun gehiago dituzte, baina oso arraroa da euskaldunen artean ere jendeak euskara erabiltzea, batez ere lan kontuez aritzeko.

Hori dela eta, gazteek bezala, ohitura falta faktore garrantzitsua dela uste dute. Giroa erdalduna denez eta jendeak euren artean erdara egiteko joera duenez, oso zail ikusten dute aldaketa hori egitea. Harreman gehienak erdaraz sortutakoak dira eta hori aldatzeko zailtasunak dituzte.

Hala ere, gaitasuna da ikasle helduen ustez, euskara ez erabiltzeko arrazoirik indartsuena. Erdaraz erraztasun handiagoa daukate bai hitz egiteko, bai idazteko, eta, hori dela eta, erdaraz egiteko joera dute. Gaitasun ezak, gainera, esfortzu handia eskatzen die. Euskaraz egin nahi duten hori, jendaurreko adierazpen bat adibidez, erdarazkoa baino gehiago eta hobeto prestatu behar dute, eta horrek lan estra bat dakarkie. Beraz, euskara gainkarga bihurtzen da horrelakoetan.

Euskara ez erabiltzeko beste faktore azpimarragarri bat Bilboko testuinguru soziolinguistikoa dela deritzote. Bilbon euskaldun portzentaje txikia egoteak ere ez die laguntzen euskaraz bizitzen. Lagunarte erdaldunak dituzte gehienek eta eguneroko gauzak (erosketak egitea adibidez) euskaraz egiteko traba handiak daude.

Heldu guztiei gustatuko litzaieke euskara gehiago erabiltzea, baina zailtasun horiek oztopo bihurtzen dira eta gustatuko litzaiekeena baino gutxiago darabilte. Hala ere, ahal duten guztietan euskaraz aritzeko ahalegina egiten dute, eta dituzten oztopo horiek (gaitasun falta kasu) gainditzeko prestutasuna adierazten dute.

Horren guztiaren ondorioz, argi ikusten da gaitasuna ez dela kasu honetan erabilera baldintzatzen duen faktorea. Ikasle gazteek dute euskara-gaitasun handiena, baina eurak dira, hain zuzen ere, euskara gutxien darabiltenak eta euskararenganako jarrera negatiboena dutenak.

Eragin askoz handiagoa dute beste alderdi batzuek kasu honetan: motibazioak eta euskararen balioak. Ikusi dugun bezala, ikasle helduek askoz motibazio handiagoa dute euskara ikasteko eta erabiltzeko. Izan ere, eurek erabakita eta esfortzu handia eginez ikasi dute euskara.

Alabaina, euskarari atxikitzen dioten balioak erakusten du argi eta garbi erabileraren edo erabilera ezaren zergatia. Esan dugun modura, ikasle gazteek balio instrumentala ikusten diote euskarari eta helduek integratzailea. Bien jokaerak aztertuta, esan daiteke euskarari balio instrumentala ematen diotenen gutxiago erabiliko dutela euskara, edo erabiltzeko motibazio txikiagoa izango dutela, balio integratzailea ematen diotenen baino. Beraz, egindako azterketa honetatik ondorioztatu ahal izan dugu euskara ikasteko arrazoiek, euskarari buruzko pertzepzioek eta euskarari ematen dioten balioak baldintzatuko duela euskararen erabilera edo euskararen erabilerarenganako jarrera ere.

Horren harira, lanaren hasieran aipatutako hipotesia birgogoratuko dugu: ikasleek euskara ikasteko duten motibazioak eta euskararekiko duten pertzepzioak baldintzatuko du euskararen erabilera.

Ondorioztatu dugunaren arabera, hasierako hipotesia baieztatu egiten da: euskarari buruzko aurreiritziek (pertzepzioak) eta euskarari ematen dioten balioak (motibazioa) eragiten dute euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko hautua. Eta, gainera, bai pertzepzioak eta bai motibazioa ezberdinak dira ikerketako gazteen eta helduen artean. Hala ere, badaude ikerketa egin ondoren agertu diren beste faktore batzuk. Motibazioaz eta pertzepzioaz gain, gaitasuna faktore baldintzatzaile garrantzitsua da helduen kasuan. Gaitasun ezak ere erabilera eza dakar. Horregatik, helduen kasuan euskararen aldeko motibazioa badago ere, kasu askotan motibazioak ez du erabilera ekartzen. Halaber, bai gazteei eta bai helduei eragiten dien beste faktore bat egoera soziolinguistikoa da. Euskaraz hitz egiteko nahia dagoen kasuetan ere, Bilboko egoera soziolinguistikoa traba handia da erabilerarako pausua emateko.

ERANSKINA: Galdetegia

Arrazoiak eta bizipenak

Noiz hasi zinen euskara ikasten? Zer dela eta?

Ze bizipen izan duzu? Ze gorabehera?

Ze esfortzu suposatu dizu?

Nola sentitu zara euskara ikasten?

Zer aportatu dizu euskara ikasteak?

Erabilera

Norekin eta ze testuingurutan erabiltzen duzu euskara zure eguneroko bizitzan? Zeinetan erabiltzea gustatuko litzaizuke?

Zergatik erabiltzen duzu edo zergatik ez duzu erabiltzen?

Ze testuingurutan topatzen duzu zeure burua eroso / deseroso euskaraz?

Nola sentitzen zara euskaraz hitz egiten duzunean?

Zailtasunak eta frustrazioak

Ze zailtasun ikusten dizkiozu euskaraz ikasteari? Zer da zailena hizkuntza ikasterako orduan?

Ze oztopo duzu euskaraz komunikatzerako orduan?

Euskara ikasteko bidean momenturen batean etsitzeko gogoia izan duzu?

Nola gainditu duzu etsipen hori? Zer jarri duzu zure aldetik? Zerk lagundu dizu?

Kontzientzia-maila

Euskaraz jakitea beharrezkoa / komenigarria dela uste duzu?

Uste duzu nahikoa egiten dela euskara bultzatzeko (erakundeetan, gizartean eta abar)?

Zer uste duzu egin beharko litzatekeela euskararen egoera hobeto zedin?

Zu zer egiteko prest zaude?

Aurrera begira

Aurrera begira nola irudikatzen duzu zure ikasketa-prozesua?

Ze euskara-maila lortzeko esperantza daukazu?

Zure bizitzaren ze alorretan uste duzu (edo gustatuko litzaizuke) erabiliko duzula euskara etorkizunean?

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

AMORRORTU, Esti; ORTEGA, Ane; IDIAZBAL, itziar; BARREÑA, Andoni. 2009. Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

AMORRORTU, Esti; ORTEGA, Ane. 2010. "Euskararen balioak eta gazteen erabilera: heldu erdaldunen pertzepzioak". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 77.

ARRATIBEL, N. 1999. Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioen errola. Leioa, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (Doktorego Tesiak).

BAKER, Colin. 1992. Attitudes an language. Clevedon; Philadelphia;Adelaide: Multilingual Matters.

BARON, Robert A.; BYRNE, Donn. 1998. Psicología social.Madril: Prentice Hall Iberia.

BERRIO-OTXOA, Kontxesi. 2000. "Gaztetxoak eta hizkuntz gaitasuna, erabilera, iritziak eta hautapena". In MARTÍNEZ DE LUNA, I. eta BERRIO-OTXOA, K. (zuz.). *Etokizuna Aurreikusten* 99: Gaztetxoak eta euskara: 97-206. Gasteiz: Martínez de Luna (arg.).

CANALES, M., PEINADO, A. 1998.: Grupos de discusión. En: Delgado JM, Gutiérrez J, editores. *Métodos y técnicas cualitativas de investigación en Ciencias Sociales*. Madrid: Síntesis Psicología;

EGAÑA, Tx. 2011. MUren Atabala blogean argitaratutakoa.

EUSKO JAURLARITZA. 2001. EUSKARAREN JARRAIPENA III: "Euskararen egoerari buruzko adierazleak, adinaren arabera" EAE.

EUSKO JAURLARITZA. 2010. "Euskara: erabilera, jarrerak, politikak" (landa lana: 2010/12/16-21)

GARDNER, Robert C. 1985. Social psychology and second language learning:The role of attitudes and motivation. London: Edward Arnold.

JOLY, L. eta URANGA, B. *Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak*. In ZARRAGA eta beste. 2010. *Soziolinguistika Eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.

LARRAÑAGA, Nekane. 1996. *Euskararekiko jarrerak eta jokabideak. Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (doktorego Tesia).

LARRAÑAGA, Nekane. 2003. "Euskal gaztetxoek jarrerak euskararen etorkizuna auresaten". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 47.

MARTÍ, Fèlix; ORTEGA, Paul; IDIAZABAL, Itziar; BARREÑA, Andoni; JUARISTI, Patxi; JUNYENT, Carme; URANGA, Belen, AMORRORTU, Estibaliz. 2005. *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo: Unesco Etxea; Euskal Herriko Unibertsitatea.

MARTÍNEZ DE LUNA Iñaki, Nekane JAUSORO. 1996. "Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean" in *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 18. zbk.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki; BERRIO-OTXOA, Kontxesi (zuz.). 2000. *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Lasarte-Oria: I. Martínez de Luna.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. 2004. "Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak" in Kaxildo Alkorta eta Eneko Barrutia (Ed) *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran* 11-37. Bilbao: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, 2004.

ORTEGA, Ane; AMORRORTU, Esti; GOIRIGOLZARRI, Jone; URLA, Jacqueline; URANGA, Belen. 2013. "Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: Nolako euskalduna naiz?" *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 87-88.

PERALES, Josu. 1989. "Euskara-ikasleen motibazio eta jarrerak". *ZUTABE* 21: 9-50.

PERALES, Josu. 2001. "Gainbegirada bat hizkuntz jarrerei Euskal Herrian". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 40.

SÁNCHEZ CARRIÓN, José María. 1991. *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia: Sánchez Carrión "Txepetx" arg.

STEWART, D. W., SHAMDASANI, P. N. & Rokk, D. W. 2007. *Focus Groups: Theory and Practice*. Thousand Oaks, CA: Sage

SUÁREZ, M. 2005. *El grupo de discusión. Una herramienta para la investigación cualitativa*. Barcelona: Laertes.

TUSÓN, Jesús. 1996. *Los prejuicios lingüísticos*. Bartzelona: Octaedro.

VALENCIA, J. F.; ISASI, Xabier. 1992. "Jarreretan konsistentziaren arazoa: jarrera eta portaera arteko erlazioa". In VALENCIA, J.F. (ed). Psikologia sozialera hurbiltzeko zenbait gai. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

VILA MENDIBURU, Ignasi. 1998. *Familia, escuela, y comunidad*. Bartzelona: ICE-Horsori

ZARRAGA eta beste. 2010. *Soziolinguistika Eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Auñamendi Entziklopedia: www.euskomedia.org/aunamendi

BAT Soziolinguistika aldizkaria: www.soziolinguistika.org

Begoñazpi ikastola: www.begonazpi.org

Bilboko Udala: www.bilbao.net

Euskara ataria: www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu

EUSTAT: www.eustat.es

INE: www.ine.es

Mondragon Unibertsitatea: www.mondragon.edu

Soziolinguistika Klusterra: www.soziolinguistika.org